

Usurbilgo Udala

2020KO APIRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zampirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez da bertaratu: Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko apirilaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Agurtzane Solaberrieta alkateak pleno berezi honetara ongietorria eman die gainontzeko zinegotziei. Covid-19 birusak eragin duen osasun krisi honen aurrean ezinbestean hil honetako osoko bilkura modu telematikoan egin behar izan dutela aipatu du, dauden osasun eta babes neurriei jarraiki.

Egoera berri honek lan egiteko modu berriak eskatzen dituela eta Usurbilgo Udalean ere horretara egokitzen ari direla gaineratu du. Beraientzat ezinbestekoa zela adierazi du udalaren jardunarekin eta udal tramiteekin jarraitzea, hori horrela, oso inportantea



Usurbilgo Udala

iruditzen zitzaiela esan du osoko bilkura ere egitea tramitazioan ahalik eta etenaldi txikiena izan zedin.

Era berean, youtubetik plenoa jarraitzen ari direnak ere agurtu ditu. Plenoak publikoa izan behar duenez, hori nolabait bermatzeko, youtubeko kanaletik zuzean streaming bidez ematea erabaki zutela jakinarazi du.

Plenoko gaiekin hasi aurretik, bi ohar eman ditu alkateak.

Batetik, komunikazio kalitatea ahalik eta egokiena izan dadin norbait hizketan ari denean beste guztiek mikrofonoa itzalita edukitzea komeni dela esan du eta norbaitek hitzegin nahiko balu mikrofonoa aktibatu dezala.

Bestetik, plenoa hasi aurretik idazkariarekin hizketan egon dela esan du ea plenoa egiten ari diren bitartean konexio arazoren bat egongo balitz eta norbait plenotik kanpora geratuko balitz, zer gertatuko ote litzatekeen. Idazkariak esan dionez legeak omen dio bozketaren unean ez balego bere bozka abstentzioa dela.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2020/01/29KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko urtarrilaren 29ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2020/02/27KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko otsailaren 27ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.


*** 2020/03/09KO EZOHIKOA BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko martxoaren 9ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO OTSAILAREN 25ETIK APIRILAREN 24RA (2020/0138-2020/0256).

Alkateak 2020ko otsailaren 25etik apirilaren 24ra bitartean (2020/0138-2020/0256) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Josune Urkolak apirilaren 17ko 2020/0238 dekretuagatik galdetu du, bertan egoera berri honetan zergak nola kudeatzen diren ikusten dela aipatu du. Dekretu horretan beste hainbat punturen artean ikusten dela dio Udal honek kobratzen dituen hiru zerga inportanteenen artean, adibidez, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen zerga hori dekretua sinatu baina lehenago jada kobratzen hasita zegoela helbideratutako zerga bezala. Beraien ustez dekretu hau beranduegi etorri da eta galdetu du helbideratuta zeuden zerga horiek zergatik ez diren moztu.



Usurbilgo Udala


Alkateak erantzun dio ez duela eskuartean zerga horren egutegi fiskala zehazki zein den baina oker ez baldin badago zerga horren kobraketa epea martxoaren hasieratik apirilaren erdi alderarte da. Helbideratuta zeudenen kobraketa nahiko aurreratuta zegoela esan du. Bere garaian zergen inguruan hartutako erabakien artean zerga kobraketak atzeratzea erabaki zela aipatu du, zenbat atzeratu? Ikusten zutena zen ez zeudela egutegi fiskal berri bat onartzeko moduan eta alarma egoerak zenbat iraungo zuen ez jakiteak nekez egin zezaketela ziurgabetasun egoera horretan egutegi fiskal berri bat onartzea. Beraz, erabaki zutena izan zen zergen kobraketa atzeratzea alarma egoerak irauten duen beste.

Zerga horren kasuan, helbideratuta zeudenen kobraketa epearen azken egunean egin zela adierazi du jada bideratuta zegoelako, baina modu publiko batean herritarrei jakinarazi zaiela esan du norbaitek itzultzeko beharra izango balu, zerga hori geroago ordaintzeko aukera izango lukeela.

Xabier Olano kontuhartzaileak, alkateak esandakoa erabat berretsi du eta xehetasun gehiago emanaz gaineratu du Udaltzarrak bere garaian Ordenantza fiskalekin batera onartutako Egutegi fiskalean Ibilgailuen zerga kobratzeko epea martxoaren 3tik apirilaren 16ra izango zela ezarri zela. Aipatutako epea borondatez ordaintzeko epea dela esan du eta epe horren barruan udalek edozein garaitan kargatu ditzaketela helbideratuak daudenak. Usurbilgo Udalaren kasuan hori apirilaren 14ean egitea aurreikusita zutela zehaztu du, epea luzatu arren, borondatezko epearen kobraketa hasita zegoen martxoaren 3an eta ez zekiten noiz amaituko zen, baina kalkulatu bi hilabeteko luzapena izan zezakeela, apirilaren 14a gutxi gorabehera epe horren erdian sartzen zela esan du. Hori horrela, kontuhartzailtzako langile eta teknikariek kontsideratu zuten egokia zela, ez zela inor zigortzen eta egokia zela data horretan kobratzea. Baina geroztik eta gobernu taldearekin hitzegin ondoren esan zen malgutasunez jokatu zela eta norbaitek zailtasunak baldin bazituen automatikoki epe horiek luzatuta geratuko zirela inongo ginkargurik gabe eta gaur egun epe horiek luzatuta daudela esan du, borondatez ordaindu nahi duenak ordaintzeko aukera du inolako ginkargurik gabe. Horretarako, aukera eman zitzaizela esan du helbideratuak izan direnei zerga hori itzultzeko. Oker ez badago, aurrez helbideratu eta itzuli dutenak oso pertsona bakanak izan direla jakinarazi du, ez direla hamarrera iristen.

Beraz, laburbilduz, kontuhartzaileak adierazi du norbaitek zailtasunak izan baldin baditu aukera izan duela helbideratu zaiona ere itzultzeko. Borondatez ordaintzeko epeak luzatuta daudela, oraindik ez dakite noiz arte eta osasun alarma egoera hau amaitzen denean orduan jakingo dutela dio zehazki borondatez ordaintzeko azken epea zein den, baina helbideratuak borondatez ordaintzeko epe horren erdian gutxi gorabehera kobratuak izan direla.

Josune Urkolak adierazi du hasiera batean dekretua berandu zetorrela iruditzen zitzaizen zeren dekretua zetorren kobrantza egin eta justu hurrengo egunean.



Usurbilgo Udala

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019 EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN KOMUNIKAZIOA.

Kontuhartzaileak 2019 ekitaldiko likidazioaren berri eman du.

Kontuhartzaileak aipatu du Osoko bilkura honetan 2019 ekitaldiko likidazioaren berri ematen dela eta horrekin batera komunikazio bat egiten dela. Banatu zaien dokumentazioan bi dokumentu dituztela zehaztu du, batetik, dekretua bera eta bertan esaten da zein izan den gutxi gorabehera 2019ko likidazioaren emaitza eta, bestetik, komunikazioa bera. Komunikazioa kontuhartzaileak luzatzen duen txostena dela zehaztu du, Foru Arauak hala agintzen duelako.

Laburbilduz, kontuhartzaileak adierazi du bai dekretutik bai txostenetik ondorioztatzen dela Usurbilgo Udalaren egoera ekonomiko-finantzieroa ona dela. 2019ko abenduaren 31n 4 milioi inguruko izakin likidoak daudela, hau da, Udalaren kontu korronteetan praktikoki 4 milioi euro daudela eta hori Usurbil bezalako herri batentzat asko dela esan du. 4 milioi horietatik ia 2 milioiko gastu orokorretako diruzaintza gerakin bat dagoela zehaztu du, hau da, Udalak erabili dezakeena gauza batetarako edo bestetarako.

2019ko aurrekontuko emaitza positiboa izan dela adierazi du, ia milioi batekoa, 896.000 zehazki. Eta horretaz aparte eta hau oso inportantea dela esan du, azken urteetan Udalak aurrezki garbia izan du, hau da, bere sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoa izan dira, eta 2019an aurrezki garbi hori 2,5 milioi ingurukoa izan da, aurreko urtean baino 700.000 euro gehiago.


Beraz, kontuhartzailearen ustez oro har esan daiteke Usurbilgo Udalaren osasun egoera ona dela. Aurreko bi urtetan, 2018an eta 2019an, Ekonomi eta Finantza Plan bat egin zegoen eta indarrean egon da eta hori oso ondo bete dela eta gaur egun nolabait koltxoi egokiearekin egoera onean dagoela esan du, baita inork espero ez zuen birus honi aurre egiteko ere.

Josune Urkolak pare bat galdera dituela esan du. Ulertu duenez kontuhartzaileak hasieran aipatu duen 4 milioiko kopuru hori da abenduaren 31n Udalak duen dirua.

Saldo kobragaitzak 2 milioi pasakoak direla ikusten dute eta hori izugarria dela uste dute.

Bestetik, gehiegizko finantzaketari lotuta dauden beste 2 milioi horiek suposatzen du Zumartekoak izango direla.

Amaitzeko, gastu orokorretarako geratzen den 2 milioiko diru gerakina diru asko dela esan du. Hainbeste diru gerakin izatea zergatik den galdetu du, ea aurrekontuaren exekuzioa gutxi izan delako ote den galdetu du.



Usurbilgo Udala

Kontuhartzaileak erantzun dio esaten duenean diruzaintzako izakin likidoa 4 milioi ingurukoa dela, horrek esan nahi duela dio abenduaren 31n Udalaren kontu korrente desberdinetan zeuden saldoak 4 milioi zirela. Baina Josunek ondo esan duen bezala, 4 milioi horietako batzuk nolabait lotuak daude aurretik hartutako beste konpromiso batzuetara, adibidez, horietatik 1,6 milioi dira abenduaren azkenean erabili behar izan zuten Zumarteko maileguarenak eta Zumarteko obrari lotuak daudenak. Beraz, horiek ez direla erabilpen librekoak zehaztu du.

Era berean, kontuetan 4 milioi egoteaz aparte kobratu gabeko saldoak daudela esan du, 3,6 miliokoak, eta baita ordaindu gabeko saldoak, 1,6 milioikoak. Hori neurri batean logikoa dela esan du, hau da, kobratu gabeko saldoak egotea eta baita ordaindu gabeko saldoak egotea ere. Beharbada esan dezakete kobratu gabeko saldoan Usurbilgo kasuan gehiegi dagoela eta honen zergatia azaldu du. Kobratu gabeko saldoetan agertzen direla esan du 1.995 ingurutik datozenak eta oso gutxi kobratzen direnak. Egia dela dio zuhurtziak agintzen duela behin lau-bost urtetik goragokoak diren saldo horiek kobragaitzak jo behar direla eta horregatik teorian dauden 4 milioi horiei gehitu jasotzeko daudenak eta kendu ordaintzeko daudenak eta hala ere diruzaintzako gerakina 6 milioko horretatik kentzen dira saldo kobragaitzak 2 milioi.

Jarraian, horren zergaitia azaldu du, eta dio teorian horiek agertzen direla Udalak kobratzeko dauzkala baina badakitela oso zailak direla kobratzea, eta horregatik doiketa bat egiten dela dio, beraz, nolabait anulatu egiten direla esan dezaketela adierazi du.

Beste hainbeste dio hurrengo lerroan agertzen den Gehiegizko finantzaketa lotua. Finantzeta lotua duela dio adibidez Zumarteko obrak, Udalak mailegu bat du bere garaian 2 milioikoa zena, poliki-poliki gastatzen joan dena baina erabili behar izan dena 2019ko abenduan 1,6 milioi, eta kopuru hori orain ari direla ordaintzen zehaztu du. Oker ez badago, urtarrilean 100.000 euro ordaindu ziren, martxoan 250.000 euro ordaindu ziren eta aste honetan edo hurrengoan beste 300.000 euro ordainduko dira. Beraz, horiek lotuak daudela eta ez direla erabilpen librekoak gaineratu du.

Beraz, erabilpen librera geratzen direnak gastu orokorreko diruzaintza gerakin hori dela dio, ia 2 milioikoa, eta esan bezala Usurbil bezalako udal batentzat altxor ederra dela azpimarratu du, horrek malgutasun dexente ematen baitu.

Hori nola sortu den galderari erantzunez kontuhartzaileak adierazi du urtez urte faktore askorengatik. Tartean, Josunek aipatu duen bezala, izan daitekeela dio zenbait urtetan diru-sarrerak gehiago exekutatu direlako gastuak baino, izan daiteke diru-sarrerak uste baino handiagoak izan direlako, izan daiteke gastuak uste baino gutxiago izan direlako, faktore asko daudela esan du. Urtez urte pilatzen joan den diru-poltsa dela esan du.

Exekuzioari dagokionez, kontuhartzaileak adierazi du justu datu hori jasota dagoela beraien txostenetan eta kontuhartzaileak berak likidaziorako egin duen txostenean zera esaten duela dio: Aurrekontuen exekuzioa 2019an oso ona izan da, sarreretan %85,43koa eta gastuetan %75,34koa, beti ere, urte barruan. Gaineratu du bai sarreraren



Usurbilgo Udala

exekuzioa eta bai gastuen exekuzioa, biak ere aurreko urtekoen gainera daudela nabarmen. Bere ustez eta datuetan oinarrituz, bai aurreko urteetako erreferentziak hartuta eta baita inguruko udalen erreferentziak hartuta, exekuzio portzentai hauek nahiko exekuzio maila onak direla azpimarratu du.

Alkateak galdetu dio kontuhartzaileari ea noiz izango duten 2019ko aurrekontuaren exekuzioa.

Kontuhartzaileak erantzun dio egunero ari direla exekutatzeko. Eman dituen datuak abenduaren 31koak direla zehaztu du, eta gero hileroko poliki-poliki aldatzen doazela, nahiz eta asko ez aldatu.

2019 ekitaldiko likidazioaren berri eman da eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO EQ.01 PARTZELAKO ZUZKIDURA-EKIPAMENDUA GAUZATZEKO UDALA ETA EREMUKO HITZARMEN-BATZARRAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA (ESP. ZK.: HZ.02/2020-0126).


Alkateak adierazi du gai hau Hirigintza batzordetik diktaminatuta datorrela eta jarraian hitzarmenari buruzko azalpenak eman ditu.

Hasteko, alkateak aurrekariak aipatu ditu. Ugartondoko eremuan garapen urbanistiko bat garatzen ari dela esan du eta hor Udalak eraikin publiko bat lortzen duela. Aurreko legealdiaren azken txanpan udal gobernua bere buruari galdetu zion zertarako eraikin publiko hori. Hori zehazteko eta erabaki ahal izateko usurbildarren eta Usurbilgo behar sozialen azterketa bat egin zela eta hor bi behar nabarmen atera zirela esan du. Batetik, gazteen emantzipazio beharra eta, bestetik, bakarrik bizi diren eta konpainia behar duten pertsonen behar soziala. Hor ikusi zela dio zergatik ez bi behar horiek uztartu eta proiektu amankomun batean asetu. Horrela sortu zela dio Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa ideia.

Idea horretan dena egiteke zegoen, dena erabakitzeko zegoen eta erabaki zen proiektu horren definizioan, edukiak zehazteko orduan, etxe horren erabiltzaile potentzialak izango ziren gazteei eta adinekoei hitza ematea eta haiekin parte hartze prozesu bat egitea.

Parte hartze prozesu horretan Txirikorda proiektuaren eduki nagusiak finkatu zirela esan du eta baita hirigintzari lotutako aurre-proiektu bat ere.

Tartean legealdi aldaketa gertatzen dela dio eta beraien eskuetara proiektua iristen denean proiektu definitibo bat jasotzen dute eduki sozialei dagokionez eta baita hirigintza alorreko aurre-proiektu landu bat ere.



Usurbilgo Udala

Legealdiko lehen hilabeteetan harremanak, bilerak, hartuemanak hasi zituztela esan du eremu horretako hitzarmen-batzarrarekin. Hitzarmen-batzar hau Jauregizar eta Sukia eraikuntza enpresek osatzen dutela esan du.

Ugartondoko eramuak ibilbide luzea izan duela aipatu du, ia 15 urte luzetakoa. Tartean hamaika txosten urbanistiko onartu dira eta txosten horietan jasotzen zen eraikin publiko hau nola egin.

Eraikuntza enpresekin hizketan hasi zirenean ikusi zutela dio parte-hartze prozesutik atera zen aurre-proiektu horrek nolabait gainditu egiten zuela eraikuntza enpresa hauek partzela hori egiteko zuten aurrekontua.

Era berean, ikusita Txirikorda ekipamendu dotazional bat dela, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailarekin ere hainbat bilera izan dituzte eta hauek esan zieten Eusko Jaurlaritzak badituela halako ekipamendu dotazionaletarako, etxebizitza dotazionaletarako dirulaguntza lerro ezberdinak eta Txirikorda proiektua bete-betean sartzen zela Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen proiektuen artean. Hau horrela, Usurbilgo Udalari bide interesgarri bat ireki zitzaiola esan du, proiektua kasik %100ean finantzatu ahal izateko. Kontua da Jaurlaritzako dirulaguntzak lortu ahal izateko horren promozioak publikoa izan behar duela, Udalak izan behar duela horren sustatzailea. Proiektu honen gauzaperari begira aukerarik errealena, eraginkorrena eta Udalarentzat interesgarriena zela ikusi zuten.

Bide hau planteatu zien Hitzarmen-batzarrari eta hauek ez zuten inolako arazorik ikusten horretan, beraz, hor adostu behar zutena zen eraikin publiko horren kostua zenbatekoa izango zen eta diru hori Udalari itzultzea, horrela ja Udalak bideratu ahal izateko proiektua. Eraikuntza enpresa horiekin negoziatioetan ibili direla eta aintzat hartuz ibilbide guzti honetan onartutako txosten urbanistikoetan ateratzen ziren kantitateak, haiek Udalari itzuli beharrekoa zenbat zen finkatu zuten.

Hauek guztiak bilduz gaur plenora ekartzen den hitzarmena osatu zutela adierazi du.

Hitzarmen honen funtsa lau-bost puntutan laburbildu du alkateak.

Bertan zehazten dela dio Udalari itzuli behar dioten diru kopurua, 1.423.000 euro.

Baita ere diru hori nola ordaindu behar duten, eta lau fasetan itzultzea adostu da, malgutasunez jokatzuz. Jarraian, ordainketa faseak aipatu ditu.

Exekuzio-proiektua egitea eta obraren zuzendaritza ere enpresa horien gain geratzen dela zehaztu du. Nolanahi ere, obran gerta daitezkeen arazo edo desadostasunak sahiesteari begira, Udalarentzat inportantea zela dio orain exekuzio-proiektu hau elkarrekin osatzea eta elkarrekin adostea; horretarako, mahai tekniko bat osatu dutela esan du.

Txirikordaren inguruko urbanizazioa ere enpresa horien esku geratzen dela esan du.



Usurbilgo Udala

Behin hitzarmen hau onartuta, hurrengo urratsak zeintzuk izango liratekeen aipatu ditu alkateak. Exekuzio-proiektua maiatzerako amaituta egongo dela eta hori eskuetan dutela Eusko Jaurlaritzan aurkeztuko dute dirulaguntzak eskuratu ahal izateko eta behin Jaurlaritzaren ebazpena eskuetan izanda, obrak esleitzeko prozedura hasiko luketela zehaztu du.

Jaurlaritzako dirulaguntza oinarriak irakurri ondoren eta haiekin izandako elkarrizketen ondoren ikusi zuten lortu dezaketen dirulaguntza dela etxe bakoitzeko %30a. Beraz, jasotzea espero duten dirulaguntza honekin eta hitzarmen honen bitartez eraikuntza enpresetatik jasoko duten diruarekin ia-ia %100ean finantzatuko da Txirikorda. Bide honi ikusten zioten desabantaila bakarra epeetan luzatzea zen, baina Usurbilgo Udalarentzat eta ondorioz herriarentzat biderik egokiena hau ikusten zuten berme guztiekin Txirikorda aurrera eramateko. Are gehiago, momentu honetan bizitzen ari garen egoerarekin aurrekontuetan egin beharko diren murrizketekin alkateak ez du inolako zalantzarik hau zela biderik egokiena.

Alkateak hitza eman die zinegotziei.

Mirari Azurmendik hitza hartu du eta galdera pare bat dituela esan du. Pasa den Hirigintza batzordean alkateak hitzarmen honi buruzko azalpenak eman zituela dio, baina proiektu hau Hirigintza batzordetik pasatzen den lehen aldia dela, nahiz eta Noauaren bitartez eta kalean hitzeginda parte-hartze prozesu horren berri bazuten.

Ekipamendu honen erabilerari dagokionez, Mirarik dio alkateak azaldu duela behar sozialen azterketaren ikuspuntutik identifikatu dela gazteen eta helduen behar hori, baina bere galdera dela dio herriko beharren ikuspegi zabalago batetik ze behar dauden eta behar horien artetik hau izango al litzatekeen lehentasuna duena.

Bigarren galderari dagokionez, hasierako inbertsioa bideratuta dagoela adierazi dute baina bideragarritasun azterketa egin al den galdetu du Mirarik. Hau da, aurrerako urteei begira Usurbilgo Udalak ze obligazio izango dituen ekonomikoki edo ze etorri daitekeen hortik.

Lehen galderari dagokionez, alkateak erantzun dio aurreko legealditik erantzunda dagoen galdera bat dela eta aztertuta dagoela. Harrituta geratzen dela dio lehenengo aldia dela Txirikordari buruz entzuten duela esaten duenean. Ziur dagoela dio udal honetan Txirikordari buruz batzorde ezberdinetan hitzegin dela, parte-hartze prozesu bat egin da, aurkezpen bat egin da, beraz, aurreko gobernuak eta oraingoak denbora luze daramatela dio Txirikordaz hitzeginen.

Lehentasunei dagokionez, alkateak erantzun dio azterketa hori aurreko legealdian egin zela eta ulertzen duela dio horren arabera markatu zirela lehentasunak. Berak ez duela zalantzarik dio gazteek gaur egun duten arazo nagusienetakoa dela emantzipatzeko zer nolako zailtasunak dituzten, bizi duten prekarietatearen ondorioz eta etxebizitzaren prezioen ondorioz. Txirikordak behar horri bete-betean erantzuten diola uste dute. Adinekoen beharrari dagokionez, Usurbilen badirela dio bakarrik bizi direnak eta



Usurbilgo Udala

egoera horretan zer nolako zailtasunak dituzten bai etxebizitzara igotzeko, etxebizitzan bertan mugitzeko zailtasunak, segun eta non bizi diren beraien autonomia garatzeko zailtasunak eta ulertzen dute pertsona hauei ere erantzun bat eman behar zitzaiela.

Eta horrela sortzen da Txirikorda proiektu berritzailea, Euskal Herrian gazteak eta adinekoak batzen dituen lehen proiektu komunitarioa dela zehaztu du. Europako beste herrialde batzuetan oso garatuta dauden proiektuak direla esan du. Aurreko gobernua ausardia handia izan zuela uste du mota honetako proiektu bat bideratzea erabakitzerakoan eta noski udal gobernua proiektu honekin bat egiten duela adierazi du. Horregatik, beraiantzat legealdi honetako lehentasunetako bat da Txirikorda. Berritzailea den aldetik esperimentu bat dela dio, ikusteke daudela dio herritarrek nola erantzun duten eta ondo erantzuten badute aurrera begirako etxebizitza politikan kontutan hartu beharreko formula egoki bat izan daitekeela uste dute.

Lehen aipatu duten bezala, legealdi honetan gauzapeneko fase batetan aurkitzen direla esan du, bai hirigintzaren aldetik eta bai gai sozialari begira. Gaineratu du honek eskatzen duela araudi propio bat sortzea eta ordenantza bat egitea, eta hain justu ere beraien asmoa dela dio aurten bertan prozesu bat irekitzea horren inguruan ordenantza bat osatzeko. Horrek bere baitan ekarriko duela esan du azterketa ekonomiko bat egitea jakiteko Udalarari urtero zer suposatuko dion.


Azpimarratu du Udalak egin dezakeen inbertsiorik onena dela, gazteen emantzipazioa errazteko eta beraien bizi-proiektua mota honetako etxebizitza batean modu kolektibo batean garatzeko.

Legealdi planean orain egitea jasota zutela adierazi du eta horretan hastera zihoaztela baina gertatu den guztia gertatuta alde batera utzi behar izan dutela gaineratu du.

Mirari Azurmendik adierazi du proiektua berritzailea iruditzen zaiela baina hori ez dela arrazoi nahikoa horrelako proiektu bat probatu eta esperimentatzera joateko. Uste dute ikuspegi orokor batetik beharren azterketa bat egin behar dela eta ikusi ikuspegi sozial batetik zenbatek jasoko duten onura. Era berean, ezinbestekoa iruditzen zaio bideragarritasun ekonomikoaren azterketa aurretik egitea. Prudentziarekin jokatzu abstenitu egingo direla jakinarazi du.

Alkateak adierazi du uste zuela debate hauek aspaldi emanda zeudela udal honetan eta galdera hau egingo ziola jakin izan balu parte-hartze prozesutik atera ziren oinarri eta eduki guztiak ekarriko zituela ondo erantzun ahal izateko, orain buruz ari baita.

Kolektiboak zehazten direnean, norentzako bideratuko diren, zehaztu du hitzegiten ari direla 19 eta 30 urte bitarteko gazteentzako bideratutako etxebizitzak direla. Ez dakiela dio etxebizitza beharra dutenen kopuru zehatza baina uste du portzentai haundi bat izango dela, tamalez Usurbilgo gazteek duten etxebizitza beharra euskal gazteriak oro har duen arazo nagusietako bat baita. Uste du administrazio publikoek ausardia behar dutela, horregatik txalotu du proiektu hau, arazo horri adarretatik heldu eta horri erantzuteko. Bideragarritasun ekonomikoa, lehen aipatu duen moduan, prozesuarekin



Usurbilgo Udala

batera egin behar dute. Garbi duela dio administrazio publikoen betebeharra dela etxebizitza eskubidea bermatzea, oinarrizko eskubide bat baita, eta zer esanik ez gazteena, eta Udalak hori bere gain hartu behar du inolako zalantzarik gabe.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2020-0126

Usurbilgo Udalak, egungo udal beharrak aztertu ondoren, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko EQ.01 partzelako ekipamendu publikoko eraikinaren erabilera zehaztu du: zuzkidura-bizitokia izango da, eta aurreproiektu bat egin du eraikinaren eraikuntza-tipologia zehazteko.

Gauzak horrela, Alderdien artean hainbat bilera egin ondoren, ekipamenduko eraikina eta lurzatiaren urbanizazioa egin ahal izateko modua adostu dute, eta honako irizpide hauek ezarri dira:

- Eraikina egiteko eraikitze proiektua eta obraren zuzendaritza osoa Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak enkargatuko eta ordainduko du.
- Usurbilgo Udalak zuzkidura-ekipamendua eraikitze obrak lizitatuko ditu.
- Hitzarmen-batzarrak diru kopuru finko bat ordainduko dio Usurbilgo Udalari eraikina egiteko.
- Hitzarmen-batzarrak eraikin publikoari dagokion partzela urbanizatzeko lanak egingo ditu

Udalak eta eremuko Hitzarmen-batzarrak honako hitzamina adostu dute:

Usurbilen, 2020ko maiatzarenn

En Usurbil a de Mayo de 2020

BILDURIK

REUNIDOS

ALDE BATETIK:

DE UNA PARTE:

Agurtzane Solaberrieta Mesa anderea, Usurbilgo Udaleko alkate-udalburua den aldetik, Udalbatzak 2020ko apirilaren 30ean hartutako erabakiaren arabera dituen eskumenekin bat etorritik.

Doña **Agurtzane Solaberrieta Mesa**, en su calidad de Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Usurbil, de acuerdo con las atribuciones que tiene conferidas conforme al acuerdo plenario de fecha 30 de Abril de 2020.

BESTETIK

DE OTRA PARTE:



Usurbilgo Udala

..... jaunak/andereak, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako 59 "Ugartondo" eremuko Hitzarmen-batzarreko presidenteak, Batzarrak hartutako erabakiaren arabera dituen eskumenen arabera.

Bi alderdiek ordezkaritzan parte hartzen dute, eman zaizkien ahalmenekin, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna eta legitimazioa.

AZALTZEN DUTE

I.- 2004ko azaroan, Usurbilgo Udalak onartu zituela plangintzako Arau Subsidiarioetako Atallu 6. egikaritze-unitatea eta Ugartondo 59. eremua garatzeko, Usurbilgo Udalarekin sinatu beharreko hitzarmenaren esleipenduna hautatzeko lehiaketa arautu zuten baldintza teknikoen agiriak eta klausula juridiko, administratibo eta ekonomikoen pleguak ere,

Prozedura 2005 urtean zehar egin zen, eta hirigintza-hitzarmena 2005eko uztailaren 22an gauzatu zen. JAUREGIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. enpresa (*aurrerantzean Jauregizar SL*) izan zen esleipenduna.

II.- Plegu teknikoetan ezartzen zela, besteak beste, Udalari ekipamendu-eraikin bat lagatzeko betebeharra, irizpide hauen arabera finantzatzeko litzatekeena

- Eremuko jabeek bigarren sotoa eta lehen hiru solairuak ordaindu beharko lituzkete eta Udalak, berriz, lehenengo sotoa eta beheko solairua (7. atala)
- Baldintza-pleguaren 8. atalean ekonomikoki baloratu ziren eskatutako konpromisoak, eta horiek honako hauek dira:

Don/Doña, en su calidad de Presidente/a de la Junta de Concertación del Área 59 "Ugartondo" de las Normas Subsidiarias de Usurbil, de acuerdo con las atribuciones que tiene conferidas conforme al acuerdo de la Asamblea.....de fecha

Ambas partes intervienen en la representación y con las facultades que les ha sido conferida, reconociéndose mutuamente capacidad y legitimación para suscribir el presente convenio


EXPONEN

I.- Que en noviembre de 2004 el ayuntamiento de Usurbil procedió a la aprobación de los Pliegos de prescripciones técnicas y de los pliegos de cláusulas jurídicas, administrativas y económicas que regularon el concurso para seleccionar el adjudicatario del convenio a suscribir con el Ayuntamiento de Usurbil, para desarrollar la Unidad de Ejecución nº 6 Atallu y el Area 59 Ugartondo de las Normas Subsidiarias de planeamiento.

El procedimiento discurre durante el año 2005, formalizándose el convenio urbanístico el 22 de julio de 2005 resultando adjudicataria la empresa JAUREGIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L. (*en adelante Jauregizar S.L.*)

II.- Que en los pliegos técnicos se establecía entre otras, la obligación de ceder al Ayuntamiento un edificio de equipamiento que se financiaría en base a los siguientes criterios:

- Los propietarios del área les correspondería costear el segundo sótano y las tres primeras plantas y al Ayuntamiento el primer sótano y la planta baja (apartado 7).
- En el apartado 8 del pliego se valoraron económicamente los compromisos exigidos, siendo éstos los siguientes:



Usurbilgo Udala

- Ekipamenduaren proiektuak idaztea: 127.939 €.
- Ekipamenduko eraikinaren eraikuntza-prezioa, jabetzari egozten zaion zatian: 929.340 €.
- Pleguan zehazten denez, Usurbilgo Udalak deitutako lehiaketa mugatuan hobetu ahalko lirateke prezioak.
- Prezioak eraikuntza-prezioen indizearen (EPI) aldaketaren arabera eguneratuko dira, hasierako erreferentziatzat 2005eko urtarrilaren 1a hartuta.

III.- Jauregizar S.L.k bere proposamena aurkeztu zuen egindako lehiaketara, eta ekipamendu publikoari dagokionez, honako hau eskaini zuen:

- Oinarrizko proiektua eta egikaritze-proiektua idaztea, obra-zuzendaritza barne 107.518 €.
- Ekipamendura bideratutako eraikinaren exekuzio materialaren kostua: 1.315.000 €.
- Prezio horretan, urbanizazioa gauzatzeko ekipamenduari dagokion zatia sartuta dagoela adierazi zuten: 125.000 €.

IV.- "Ugartondo" 59 eremuaren hirigintza-garapenerako Hitzarmen-batzar bat eratu zen, eta hark eremuaren antolamendua eta kudeaketa idatzi eta bultzatu zituen. Honako dokumentu hauek onartu ziren:

- 2009ko otsailaren 24ko osoko bilkuraren erabakiz eremua antolatzeko Plan Berezia.

- Redacción de los proyectos del equipamiento: 127.939 €.

- Precio de construcción del edificio de equipamiento en la parte que se imputa a la propiedad: 929.340 €.

- En el pliego se determina que los precios podrían ser objeto de mejora en el concurso restringido convocado por el Ayuntamiento de Usurbil.
- Los precios serán objeto de actualización conforme a la variación del índice de precios de la construcción (IPC), tomando como referencia inicial el 1 de enero de 2005.

III.- Que Jauregizar S.L. presentó su propuesta al concurso celebrado, y respecto al equipamiento público ofertó lo siguiente:

- Redacción del proyecto Básico y de Ejecución, incluida la dirección de obra 107.518 €.
- Coste de ejecución material del edificio destinado a equipamiento: 1.315.000 €.
- Manifiestan que en este precio está incluida la parte que le corresponde al equipamiento de la ejecución de la urbanización: 125.000 €

IV.- Que para el desarrollo urbanístico del Área 59 "Ugartondo", se constituyó una Junta de Concertación, la cual redactó e impulso la ordenación y gestión del ámbito, habiéndose aprobado los siguientes documentos:

- El Plan Especial de ordenación del área por acuerdo plenario de fecha 24 de febrero de 2009.



Usurbilgo Udala

- Hirigintzako jarduketa-programa 2009ko irailean, eta haren aldaketa 2015eko maiatzean
- Birpartzelatzeko proiektua 2012ko uztailan
- Xehetasun-azterlana 2015eko irailean
- Urbanizazio-proiektua 2016ko abenduan

V.- Usurbilgo Udalak, egungo udal beharrak aztertu ondoren, ekipamendu publikoko eraikinaren erabilera zehaztu du, Zuzkidura-bizitokia izango dena, eta aurreproiektu bat egin du eraikinaren eraikuntza-tipologia zehazteko.

Ondorioz, bolumenen antolamendu berria gaur egun izapidetzen ari den xehetasun-azterlanaren aldaketan jasotzen da. Eraikinaren egokitzapen horrek eragotzi egiten du eraikinaren solairuak Administrazioak eta Batzarrak batera egiteko lehiaketan ezarritako irizpidea aplikatzea.

VI.- Alderdien artean hainbat bilera egin ondoren, ekipamenduko eraikina eta lurzatiaren urbanizazioa egin ahal izateko modua adostu dute, eta honako irizpide hauek ezarri dira:

- Eraikina egiteko eraikitze proiektua eta obraren zuzendaritza osoa Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak enkargatuko eta ordainduko du.
- Usurbilgo Udalak zuzkidura-ekipamendua eraikitze obrak lizitatuko ditu.
- Hitzarmen-batzarrak diru kopuru finko bat ordainduko dio Usurbilgo

- El Programa de Actuación urbanizadora en septiembre de 2009, y su modificación en mayo de 2015.
- Proyecto de Reparcelación en julio 2012.
- Estudio de Detalle en septiembre de 2015.
- Proyecto de Urbanización en diciembre de 2016.

V.- Que el Ayuntamiento de Usurbil, tras analizar las actuales necesidades municipales, ha definido el uso del edificio de equipamiento público, el cual será destinado a alojamiento dotacional, y ha elaborado un anteproyecto para definir la tipología edificatoria del edificio.

En consecuencia, la nueva ordenación de volúmenes se refleja en la modificación del Estudio de Detalle, actualmente en tramitación. Esta adecuación del edificio impide aplicar el criterio establecido en el concurso de ejecutar las diferentes plantas del edificio de forma conjunta entre la administración y la Junta.

VI.- Que tras celebrarse diferentes reuniones entre las partes, se ha acordado la forma para posibilitar la construcción del edificio de equipamiento y la urbanización de la parcela, fijándose los siguientes criterios:

- El Proyecto de ejecución del edificio y la dirección de la obra, en su totalidad, lo encargará y abonará la Junta de Concertación de Ugartondo.
- El Ayuntamiento de Usurbil licitará las obras para la edificación del equipamiento dotacional.
- La Junta de concertación abonará al Ayuntamiento de Usurbil una



Usurbilgo Udala

Udalari eraikina egiteko.

- Hitzarmen-batzarrak eraikin publikoari dagokion partzela urbanizatzeko lanak egingo ditu

VII.- Usurbilgo Udalarentzat, proiektu hau interes publiko eta sozial handikoa da, eta Usurbilgo biztanleriaren sektore baten bizitoki-premiak asetzen laguntzen du. Izan ere, sektore horrek, arrazoi ekonomikoengatik ez ezik, sozialengatik ere, komunitatean bizitzeko aukera ematen du, eta hori posible da eraiki eta kudeatu nahi den zuzkidura-eraikinaren garapenarekin.

VIII.- Hitzarmenak, Administrazio publikoek zuzenbide publikoko eta pribatuko erakundeekin hartzen dituzten akordioak formalizatzeko, ondorio juridikoekin, tresnak dira. Horiek sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. eta hurrengo artikuluetan arautzen dira.

IX.- Azaldutako guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau gauzatzeko akordio bat lortu dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da EQ.01 lurzatian aurreikusitako zuzkidura-ekipamenduari dagozkion eraikuntza-obrak eta aipatutako lurzatiaren urbanizazio-obrak finantzatzeko eta gauzatzeko, Usurbilgo Udalak eta "Ugartondo" 59 eremuko Hitzarmen-batzarrak beren gain hartzen dituzten elkarrekiko konpromisoak ezartzea.

(Urbanizatu beharreko lurzatiaren planoaren erantsi da **1. dokumentu gisa**)

cantidad económica fija para la construcción del edificio.

- La junta de Concertación ejecutará las obras de urbanización de la parcela que corresponde al edificio público.

VII.- Que para el Ayuntamiento de Usurbil el presente proyecto es de gran interés público y social, y contribuye a satisfacer las necesidades de alojamiento—para un sector de la población de Usurbil que opta -no solo por motivos económicos, sino también sociales- a una forma de vida en comunidad, que es posible con el desarrollo del edificio dotacional que se propone construir y gestionar.

VIII.- Los convenios son los instrumentos para formalizar los acuerdos, con efectos jurídicos, que adopten las administraciones públicas con entidades de derecho público y privado, los cuales se rigen por los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.


IX.- Por todo lo expuesto, las partes han alcanzado un acuerdo para instrumentalizar en el presente Convenio con sujeción a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto

Es objeto del presente convenio establecer los compromisos mutuos que asumen Ayuntamiento de Usurbil y la Junta de Concertación del área 59 "Ugartondo" para la financiación y ejecución de las obras de edificación correspondientes al equipamiento dotacional previsto en la parcela EQ.01, así como las obras de urbanización de la mencionada parcela.

(Se aporta como **documento nº1 plano de la parcela a urbanizar**).



Usurbilgo Udala

Bigarrena.- Proiektua idaztea eta onartzea. Obraren zuzendaritza

Ugartondo 59. eremuko Hitzarmen-batzarrak konpromisoa hartzen du Plan Bereziko EQ-1 lurzatian zuzkidura-ekipamendua eraikitzeko egikaritze-proiektua idatzi eta ordaintzeko, eta horrek, oro har, Ane Zeberio eta Julen Luzuriaga (LZB arkitektura Koop) arkitektoek idatzitako aurreproiektuan zehaztutako eraikuntza-irizpideei jarraituko die.

Era berean, obraren zuzendaritza esleitu eta ordainduko du.

Hirugarrena.- Egikaritze-proiektua aurkezteko epea

“Ugartondo” 59. arloko Hitzarmen-batzarrak konpromisoa hartu du zuzkidura-ekipamendua gauzatzeko proiektua aurkezteko 2020ko MAIATZERAKO.

Laugarrena.- Batzorde Teknikoa

Obrak idazten eta gauzaten laguntzeko, jarraipen-batzorde tekniko bat eratuko da, eraikuntza-proiektuaren idazketan, urbanizazio-obren koordinazioa eta obra-zuzendaritzan erabaki teknikoak hartu ahal izateko.

Batzordea kide hauek izango ditu:

- Usurbilgo Udaleko Hirigintza zinegotzia.
- Udal-arkitektoa.
- Proiektua idatzi duen arkitektoa eta obren zuzendaria.
- Hitzarmen-batzarraren ordezkaria.

Bosgarrena.- Obrak egitea

Segunda.- Redacción y aprobación del proyecto. Dirección de la obra.

La Junta de Concertación del área 59 “Ugartondo” se compromete a redactar y abonar el Proyecto de Ejecución para la construcción del equipamiento dotacional en la parcela EQ-1 del Plan Especial, siguiendo -con carácter general - los criterios edificatorios definidos en el anteproyecto redactado por los arquitectos/as Ane Zeberio y Julen Luzuriaga (LZB Arkiectura Koop)

Igualmente, adjudicará y abonará lo dirección de la obra.

Tercera.- Plazo para la presentación del proyecto de ejecución

La Junta de Concertación del área 59 “Ugartondo” se compromete a presentar el Proyecto de Ejecución del equipamiento dotacional para el mes de MAYO de 2020.


Cuarta.- Comisión Técnica

Con la finalidad de colaborar en la redacción y ejecución de las obras, se creará una comisión técnica de seguimiento con la finalidad de que puedan adoptarse decisiones técnicas en la redacción del Proyecto de edificación, en la coordinación de las obras de urbanización y en la dirección de las obras.

Este comisión estará compuesta por los siguientes miembros:

- La concejala de urbanismo del Ayuntamiento de Usurbil.
- La Arquitecta municipal.
- El arquitecto redactor del proyecto y director de las obras.
- Representante de la Junta de Concertación.

Quinta.- Ejecución de las obras



Usurbilgo Udala

1. Usurbilgo Udala, egikaritze-proiektuaren berri eman eta onartu ondoren, zuzkidura-ekipamendua eraikitze obrak lizitatzeko arduraduna izango da.
2. EQ.1 lurzatiaren urbanizazio-obrei dagokienez, Ugartondo eremuko Hitzarmen-batzarrak egingo ditu, eraikuntza-lanekin batera koordinatuta.

Seigarrena.- Obren finantzaketa

1. Hitzarmen-batzarrak MILIOI BAT LAUREHUN ETA HOGEITA HIRU MILA EUROKO 1.423.000 €-ko zenbateko finkoa ordainduko dio Usurbilgo Udalari, zuzkidura-ekipamendua eraikitze. Zenbateko hori honako datu hauek aplikatzearen ondorio da:
 - Jauregizarrek lehiaketan eskainitako diru kopurua: 1.315.000 €.
 - Kopuru horretatik, 125.000 € urbanizazioari dagozkio.
 - Ekipamendua eraikitze bideratutako zenbatekoa: 1.190.000 €.
 - KPIa eguneratzea 2005eko urtarrilaren 1etik atzerapenaren denboraren erdira arte (7 urte), atzerapen hori ez baita Hitzarmen-batzarraren erantzukizuna izan soilik.
2. 1.423.000 eurotik gorako zenbatekoa Usurbilgo Udalak ordainduko du.

Zazpigarrena.- Ordaintzeko modua


1. El Ayuntamiento de Usurbil, una vez informado y aprobado el Proyecto de ejecución, será el encargado de licitar las obras de edificación del equipamiento dotacional.
2. Respecto a las obras de urbanización de la parcela EQ.1, estas serán ejecutadas por la Junta de Concertación del área de Ugartondo, de forma coordinada con las obras de edificación.

Sexta.- Financiación de las obras

1. La Junta de Concertación abonará al Ayuntamiento de Usurbil, para la construcción del equipamiento dotacional, la cantidad fija de UN MILLÓN CUATROCIENTOS VEINTITRÉS MIL Euros 1.423.000 €. Dicha cantidad resulta de la aplicación de los siguientes datos:
 - Cantidad económica ofertada por Jauregizar en el concurso: 1.315.000 €.
 - De dicha cantidad, 125.000 € corresponde a la urbanización.
 - Cantidad resultante destinada a la construcción del equipamiento: 1.190.000 €.
 - Actualización del IPC desde 1 de enero de 2005, hasta la mitad del tiempo del retraso (7 años), debido a que esta demora no es únicamente responsabilidad de la Junta de Concertación.
2. La cuantía que exceda del 1.423.000€ será sufragada por el Ayuntamiento de Usurbil.

Séptima.- Forma de pago

- 1.- La Junta de Concertación de



Usurbilgo Udala

1.- Ugartondoko Hitzarmen-batzarrak 1.423.000 €ak ordaintzeko konpromisoa hartu du, honako epe hauetan:

- % 25 hitzarmen hau sinatzen denean.
- % 25, Usurbilgo Udalak ekipamendua eraikitzeke obra esleitzen duenean.
- % 25, eraikinaren egitura gauzatu denean.
- Azken% 25, eraikuntza-lanak amaitzen direnean.

Ordainketa HILABETEKO epean egingo da, Udalak errekerimendua jakinarazten duenetik hasita. Ordaindu ezean, premiamendu bidez ordaintzea eskatuko da.

2.- Baldin eta 59 Ugartondo eremuan eraikitzen ari diren BOE eraikinarentzako lehen erabilerako lizentzia eskatzen badute, zuzkidura-ekipamendua amaitu baino lehen, Ordaintzeke dagoen zenbatekoa hamabost eguneko epean ordainduko da, bizitegi-erakinaren lehen erabilerarako lizentzia eskatzen denetik kontatzen hasita.

Ondorioz, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du Babes Ofizialeko Etxebizitzak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emateko, baldin eta Hitzarmen-batzarrak eskatutako baldintza tekniko guztiak betetzen baditu eta zuzkidura-ekipamenduaren osorik ordaindu badu. Indarrrik gabe geratuko da Usurbilgo Udalak eta Jaureguizar Promoción y Gestión Inmobiliaria SL merkataritza-sozietateak 2017ko urtarrilaren 12an sinatutako hitzarmenaren hirugarren xedapena.

Ugartondo se compromete a abonar la cantidad de 1.423.000 € en los siguientes plazos:

- Un 25% a la firma del presente convenio.
- Un 25% cuando el Ayuntamiento de Usurbil adjudique la obra de edificación del equipamiento.
- Un 25% cuando se ejecute la estructura del edificio.
- El 25% final cuando finalicen las obras de edificación.

El abono se realizará en el plazo de UN MES desde que se notifique el requerimiento por parte del Ayuntamiento. En caso de impago se exigirá el pago vía apremio

2.- En el supuesto de que los edificios de VPO que se están construyendo en el Area 59 Ugartondo soliciten licencia de primera utilización, con carácter previo a que esté finalizado el equipamiento dotacional, la cantidad que esté pendiente de pagar se abonará en el plazo de quince días, contados a partir de que se solicite dicha licencia.

En consecuencia, el Ayuntamiento de Usurbil, se compromete a otorgar la licencia de primera utilización de los edificios de VPO una vez que la Junta de Concertación cumpla con la totalidad de los requisitos técnicos exigidos y hayan abonado la totalidad del equipamiento dotacional, quedando sin efecto la disposición tercera del convenio formalizado entre el Ayuntamiento de Usurbil y la mercantil JAUREGUIZAR Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L: el 12 de enero de 2017.



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udala



1. DOKUMENTUA

DOCUMENTO N°1



Usurbilgo Udala

EQ.01 PARTZELAKO URBANIZAZIOA



EQ.01 EKIPAMENDU PARTZELA DOTAZIONALAREN URBANIZAZIOA

Ugartondo eremuko urbanizazioari jarraitasuna emango dio eta ezaugarri eta nolokotasun berdinak izango ditu, eta barme hartuko ditu honako hauek ere:

- Eraikinaren akometida puntuetarainoko hiri zerbitzuen sareak.
- Erabilera publikoa duten ataripe edo portxeetako zoladura eta argiteria publikoa. Aldiz, soto edo erdisotoko egitura gaineko iragazpenerako eta isolamendurako sistemak eraikinaren eraikuntza lanen parte izango dira.

Mantendrá las mismas características y cualidades de la urbanización del área de Ugartondo dando continuidad a la misma, incluidas las siguientes:

- Redes de servicios urbanos hasta los puntos de acometida del edificio.
- Pavimentación y alumbrado público de las zonas de porche. Sin embargo, será parte de los trabajos de construcción del edificio los sistemas de impermeabilización y aislamiento de las estructuras de sótano o semisótano.



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENA.- Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko EQ.01 partzelan aurreikusitako zuzkidura-ekipamenduari dagozkion eraikuntza-obrak eta aipatutako partzelaren urbanizazio-obrak finantzatzeko eta gauzatzeko, azalpenetan jasotako Usurbilgo Udalaren eta eremuko Hitzarmen-batzarraren arteko hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aipatutako hitzarmena izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri eremuko Hitzarmen-batzarrari eta kontuhartzaitzari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-83 (OROITZAPENA) EREMUKO ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA ETA JENDAURREAN JARTZEA (ESP. ZK.: HZ.01/2020-0073).

Alkateak adierazi du gai honetaz ere Hirigintza batzordean aritu zirela eta bertatik diktaminatuta datorrela.

Gai honen inguruan txosten asko daudela dio baina laburbilduz hemen planteatzen den aldaketa da Arauetan jasota zegoen etxebizitza kopurua aldatzea. Izan ere arauetan 4 etxebizitza egitea baimentzen da baina bertan 6 etxebizitza egiteko eskaera bat jaso da.



Usurbilgo Udala

Jasotako eskaerak arkitektoean aldeko txostena duela esan du. Hirigintza batzordean ere Amaia Illarreta arkitektoak berak honen inguruko azalpenak eman zituen, baina plenora ere ekartzen da gai hau Arauen aldaketa batetaz ari direlako.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2020-0073

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) Eremuko Antolamendu Xehatuaren Aldaketarako dokumentua osatua aurkeztu dute OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK (Ignacio Icutza Aizpurua, Imanol Ayestaran Aranburu, M^a Jesus Aranburu Alcorta eta Manuel M^a Ayestaran Ayestaran). Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek idatzi dute.

ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK sustaturik, Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honakoa dio memorian:

Dokumentu honen sarreran aipatu den bezala, hemen aurkezten den arau aldaketa puntual honek, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" esparru urbanistikoaren EZAUGARRIEN FITXAREN (TESTUAK) edukiari eragiten dio soilik; zehazki, eremuan ahalbidetutako etxebizitzaren gehienezko kopuruari dagokionean

Ezaugarrien fitxetan ezarritako gehienezko etxebizitza kopuruak ez du, 37. Artikuluan zehazten denez, egiturazko antolamenduaren izaera izango, baizik eta antolamendu xehatuarena

Adostutako aldaketa bat dator "Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurri buruzko" ekainaren 3ko 105/200 Dekretuko 30. Artikularekin, Antolamendu xehatuaren aldaketari buruzkoarekin. Bertan honakoa esaten da:

"Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia



Usurbilgo Udala

(dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. Artikuluetan araututakoa izango da.”

Horregatik, behin 37. Artikuluaren Aldaketa onartuta “EZAUGARRIEN FITXA”-ren edukia A-83 (A/TA) “OROITZAPENA” esparruaren egungo eraikuntza eta erabilera baldintzetara egokitzeko eta estalkipean bi etxebizitza berri atontzeko borondateari erantzuteko helburuarekin, goi solairuetan aurreikusitako gehienezko etxebizitza kopurua (4) aldatzea proposatzen da, 6 etxebizitzatan ezarriz.

INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURA


Usurbilgo Udalak, 2020ko otsailaren 21ean, Antolamendu Xehatuaren aldaketaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedurapean burutu behar den ala ez galdetu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendarri Nagusiari. Honek 2020ko martxoaren 6an helarazi zuen bere txostena. Hitzez hitz honela dio:

2020ko otsailaren 26an Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamento honetan sartu da Usurbilgo Udalaren kontsulta bat Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak zehaztu dezan A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren balizko aldaketa batek ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduretako bat bete behar duen indarrean dagoen araudlaren arabera.

Planteatutako aldaketaren helburua A-83 eremuko (bizitegi-izaerako hiri-lurzoru finkatua) hirigintza-fitxa aldatzea da, gaur egun existitzen den eraikinean baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua (goiko solairuetan) 4 unitatetik 6ra igotzea ahalbidetzeko. Aldaketak ez dakar inolako aldaketarik mugaketan, ez eremuaren azalera, ez eraikigarritasunean, ez eta eraikuntzaren okupazio-bolumenean ere, eta horren garapena zuzeneko exekuzioaren bidez egikarituko da.

Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, aurreikusten da planteatutako proposamenean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluetan jasotako betekizun edo baldintzetako bat ere ez duela betetzen aldaketak, ez eta 211/2012 Dekretuan jasotakoak ere, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatzeko irizpideak kontuan hartu eta aplikatu eta gero. Beraz, ulertzen da A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren aldaketak aipatutako arauetan ezarritako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bat ere ez zuela jarraitu beharko .

Azkenean aipatzea erabaki hau Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko edo lotesleko erabakitzat ezin dela hartu, eta



Usurbilgo Udala

zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein irizpideren menpean gelditzen dela.

Donostia, 2020 martxoaren 4a
INGURUMENEN KUZENDARI NAGUSIA
Monica Pedreira Lanchas

UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Içeta andereak, 2020ko apirilaren 17an honako txostena eman zuen:

BULEGO TEKNIKOA **Udal Teknikariak Alkate andreari** **PLANEAMENDUA**

AASSTB-EKO A-83 OROITZAPENA EREMUAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA PUNTUALARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-83 OROITZAPENA EREMUA, Usurbil.
ESKATZAILEA: Ignacio Içutza Aizpurua, Imanol Ayestaran Aranburu, M^a
Jesus Aranburu Alcorta eta Manuel M^a Ayestaran Ayestaran
ESKAERA DATA: 2020ko martxo
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2020-73

AURREKARIAK

- 2020ko otsailaren 19an interesatuak AASSTB-ren aldaketa puntuala aurkeztu du, A-83 OROITZAPENA eremuaren antolamendu xehatuari buruzkoa
- 2020ko otsailaren 24an kontsulta igortzen zaio GFAko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiari
- 2020ko martxoaren 6an GFAko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiaren erantzuna

Erlazionatuak:

- HZ.13/2019-0187: Oroitzapena etxean teilatu azpia etxebizitza bihurtzeko aukeraz hirigintza kontsulta
- HZ.05/2019-0257: Oroitzapena etxean eraikinaren isolamendu termikoa hobetzeko obra baimen eskaera.
- HZ.23/2019-0244: Oroitzapena etxeko trastelekuak etxebizitza bihurtzeko aukerari buruz hirigintza kontsulta.
- 1969/zbk. 76-04: Oroitzapena etxeko teilatupean bi etxebizitza egiteko proiektua- Baimena ukatzea.
- 1965-1966/zbk. 54-02: Aginaga 29 lau etxebizitza eta etxebehen proiektua. Obra Baimena.

TXOSTENA



Usurbilgo Udala

Nikolas Barandiaran Contrerasesek, Ignacio Ikutza Aizpurua, Imanol Ayestaran Aranburu, M.^a Jesus Aranburu eta Manuel Ayestaranen izenean, AASSTB-ren aldaketa puntuala aurkeztu du, A-83 OROITZAPENA eremuaren antolamendu xehatuari dagokiona, hain zuzen. Dokumentu horrekin batera aurkeztu du Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura igaro behar ote duen argitzeko kontsulta, Udalak, Organo Sustatzaile gisa, Ingurumen Organoari igorri diezaion.

Dokumentazioa aztertu ostean esan daiteke:

- ALDAKETAREN XEDEA: Eremuan aurreikusitako etxebizitzaren gehieneko kopurua egokitzea, 4 izatetik 6 izatera pasaz. Arau Subsidiarioetako 37. artikulua dionez, *“Ezaugarrien fitxetan ezartzen diren etxebizitza kopuruak ez dute egiturazko antolamendu izaerarik izango, antolamendu Xehakatuko Planak direlarik behin betiko etxebizitza kopurua ezartzen dutenak.”* Ondorioz, Hirigintza eta Lurzoruaren 2/2006 legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/200 Dekretuko 30. artikulua jarraituz, *“Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudida, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia erabilita aldatu ahal izango da.”* Beraz, onargarria da AASSTB-eko A-83 oroitzapena eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa puntuala.
- ETXEBIZITZA ERABILERA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2016ko uztailaren 5eko batzarraldian *Usurbilgo Hirigintza-plangintzako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspenaren testu bategineko araudiarenaldaketa puntuala* onartu zuen (GHI-035/16-P05-A) (GAO 2016-08 26), non, besteren artean, honakoa jasotzen zen:

“37. artikulua. Izaera orokorrean aplikagarriak diren eraikuntza baldintzak.

(...).

— Estalkipeko solairuak:

(...)

2. Eraikinen estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilerak baimendu ahal izango dira, beti ere 37. artikuluan ezarritako bizigarritasun baldin tzak eta azalera gutxienekoak bete tzen badira, baita 20/1997 Irisgarritasuna Susta tzeko Legea eta 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasunbaldintzei buruzko arau teknikoak onar tzen dituen eta horiekin batera indarrean den aplikaziozko gainon tzeko araudia (EKT, RBT, RITE, e.a.).

3. Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte hartzearen zuzkidura-karga eta lagapenei dagokionean, 2/2006 lurzoruari eta hirigin tzari buruzko Legeak, 105/2008 Dekretuak 2/2006 Legea gara tzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 123/2012 Dekretua, hirigin tza estandarrei buruzkoa eta 11/2008 Legeak, hirigin tza-jardueraz sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-har tzea aldatzekoak ezarritakoa bete beharko da.”



Usurbilgo Udala

Beraz, etxebizitza erabilera onartuta dago, beti ere, aipatutako baldintzak betetzen badira.

- **ETXEBIZITZA KOPURUA:** Aurreko puntuan aipatutako AASS-etako 37. artikulua etxebizitza berriek izan beharreko azalera minimoa ezartzen da: *100 m²ko batez besteko eraikitako azalera izan behar dute, eskailera-zuloei dagokien azalera eta eraikinaren beste elementa komunak azalera ere konputatzen direlarik.*

Kontuan izanik eraikinaren azalera eraikia 735 m²-koa dela, gehienez ere 7 etxebizitza ezarri litezke, hortaz, 6 etxebizitzako kopurua onargarria da.

- **INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA:** Aurrekarietan aipatu bezala, prozedura igaro behar duen argitzeko kontsulta igortzen zaio GFA-ko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiari. Martxoaren 6an Ingurumeneko Zuzendari Nagusiaren erantzuna jasotzen da eta honakoa esaten du: *"Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, (...) aurreikusten da planteatutako proposamenen ingurumenen ondorio nabarmenak izateko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluetan jasotako betekizun edo baldintzetako bat ere ez duela betetzen aldaketak, ez eta 21/2012 Dekretuan jasotakoak ere, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatze irizpideak kontuan hartu eta aplikatu eta gero. Beraz, ulertzen da A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren aldaketak aipatutako arauetan ezarritako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bat ere ez zuela jarraitu behar." Beti ere, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak kontrakorik esaten ez duen bitartean.*

ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, AASSTB-eko A-83 oroitzapena eremuaren antolamendu xehatuaren aldaketa puntualari **ALDEKO** txostena idazten zaio.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko apirilaren 17an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andereak, Antolamendu Xehakatuaren aldaketarako dokumentua aztertu ondoren, honako txostena eman zuen:

Esp. Zenbakia: HZ.01/2020-0073

LEGE-TXOSTENA



Usurbilgo Udala

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) Eremuko Antolamendu Xehatuaren Aldaketarako dokumentua osatua aurkeztu dute OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK (Ignacio Icutza Aizpurua, Imanol Ayestaran Aranburu, M^a Jesus Aranburu Alcorta eta Manuel M^a Ayestaran Ayestaran). Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek idatzi dute.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) JABEKIDEEK sustaturik, Jose Miguel Toledo Etxepare eta Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoek prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honakoa dio memorian:

Dokumentu honen sarreran aipatu den bezala, hemen aurkezten den arau aldaketa puntual honek, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" esparru urbanistikoaren EZAUGARRIEN FITXAren (TESTUAK) edukiori eragiten dio soilik; zehazki, eremuan ahalbidetutako etxebizitzaren gehienezko kopuruari dagokionean

Ezaugarrien fitxetan ezarritako gehienezko etxebizitza kopuruak ez du, 37. Artikuluan zehazten denez, egiturazko antolamenduaren izaera izango, baizik eta antolamendu xehatuarena

Adostutako aldaketa bat dator "Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurri buruzko" ekainaren 3ko 105/200 Dekretuko 30. Artikuluarekin, Antolamendu xehatuaren aldaketari buruzkoarekin. Bertan honakoa esaten da:

"Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilita aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. Artikuluetan araututakoa izango da."

Horregatik, behin 37. Artikuluaren Aldaketa onartuta "EZAUGARRIEN FITXA"-ren edukia A-83 (A/TA) "OROITZAPENA" esparruaren egungo erakuntza eta erabilera baldintzetara egokitzeko eta estalkipean bi etxebizitza berri atontzeko borondateari erantzuteko helburuarekin, goi solairuetan aurreikusitako gehienezko etxebizitza kopurua (4) aldatzea proposatzen da, 6 etxebizitzatan ezarritik.

INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURA



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, 2020ko otsailaren 21ean, Antolamendu Xehatuaren aldaketaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedurapean burutu behar den ala ez galdetu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiari. Honek 2020ko martxoaren 6an helarazi zuen bere txostena. Hitzez hitz honela dio:

2020ko otsailaren 26an Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamento honetan sartu da Usurbilgo Udalaren kontsulta bat Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak zehaztu dezan A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren balizko aldaketa batek ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduretako bat bete behar duen indarrean dagoen araudlaren arabera.

Planteatutako aldaketaren helburua A-83 eremuko (bizitegi-izaerako hiri-lurzorua finkatua) hirigintza-irratia aldatzea da, gaur egun existitzen den eraikinean baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua (goiko solairuetan) 4 unitatetik 6ra igotzea ahalbidetzeko. Aldaketak ez dakar inolako aldaketarik mugaketan, ez eremuaren azalera, ez eraikigarritasunean, ez eta eraikuntzaren okupazio-bolumenean ere, eta horren garapena zuzeneko exekuzioaren bidez egikaritu da.

Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, aurreikusten da planteatutako proposamenean ingurumenaren ondorio nabarmenak izateko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluetan jasotako betekizun edo baldintzetako bat ere ez duela betetzen aldaketak, ez eta 211/2012 Dekretuan jasotakoak ere, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatze irizpideak kontuan hartu eta aplikatu eta gero. Beraz, ulertzen da A-83 "Oroitzapena" eremuaren antolamendu xehatuari buruzko Usurbilgo Arau Subsidiarioen testu bateginaren aldaketak aipatutako arauetan ezarritako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bat ere ez zuela jarraitu behar.

Azkenean aipatzea erabaki hau Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko edo lotesleko erabakitzat ezin dela hartu, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein irizpideren menpean gelditzen dela.

Donostia, 2020 martxoaren 4a
INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA
Monica Pedreira Lanchas

Txosten honen arabera, Usurbilgo Udalak Antolamendu Xehatua aldatzeko espedientea onartzeko prozedurarekin jarrai dezake.

Hala ere, Foru Aldundiaren txostenaren amaieran honako paragrafo hau dago: *"Azkenean aipatzea erabaki hau Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko edo lotesleko erabakitzat ezin dela hartu, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein irizpideren menpean gelditzen dela."*

Beraz, aldaketa-espedientea tramitzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak sustatzaileei eskatuko die ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea.

Gauzak horrela zera proposatzen da, espedientea tramitatzen hastea, eta sustatzaileei honako hau jakinaraztea: *"Aldaketa-espedientea*



Usurbilgo Udala

tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak sustatzaileei eskatuko die ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea”.

TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2020ko apirilaren 17an ALDEKO txostena eman du. Bertan, aldaketari hasierazko onespena ematea eta jendaurrean jartzea proposatzen du.

IZAPIDETZA

Ekainaren 30eko 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 30. artikulua zera dio Antolamendu xehatuaren aldaketari buruz:

“Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Irizpideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.”

2/2006 Legearen **95.** artikulua arabera, Antolamendu xehatuaren aldaketak honako izapidetzea du:

95.2. art. *“Udalak hasierako onespena (...) emango dio plan partzialari. (...) Jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian/etan hasierako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera”.*

95.3. art. *“Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da”.*

95.4. art. *“Udalak plana behin-behingo edo behin betiko – dagokionez- onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onspena eman zaionetik kontatuta (...)”.*

95.5. art. *“(…)3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onspena behin betiko onspena izango da”.*

2/2006 Legearen **89. art.**k argitalpena eta indarraldia xedatzen ditu:

89.1. art. *“Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak jendaurrean jarriko du haren eduki osoa (...)”*



Usurbilgo Udala

89.3. art. “Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berriskuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldundko erregistroan sartzeko (...)”.

89.5. art. “Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onespena emateko erabakiak [...]. Behin betiko onespena emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian/etan ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, oso-osorik argitaratuko dira, bai eta dagokion hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere”.

Bestade, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak hartzea “*La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística*”.

Beraz, hasierako onespena eta behin betikoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: “ *Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.* “

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Hasierako onespena udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendaurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere hasierako onespena emango litzaioke testuari eta jendaurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespena eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespena GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.



Usurbilgo Udala

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko apirilak 17
Udal idazkariak
Irantzu Arrizabalaga Gainza

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta eta Lur Etxeberriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri sustatzaileei ematea honakoa jakinaraziz: *“Aldaketa-espedientea tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak sustatzaileei eskatuko die ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea”.*

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- FERMINDEGI HERRI-BIDEKO (22. HERRI-BIDEA) LEHEN 125 METROKO ZATIA (4. POLIGONOA 209. PARTZELA ONIBARRAREN MUGAKIDEA DENA), ERREPIDEA ETA FERMINDEGI BASERRIAREN ARTEKO ZATIA, PERMUTATZEA (ESP. ZK.: HZ.06/2019-0317).

Alkateak adierazi du puntu hau ere Hirigintza batzordetik diktaminatuta datorrela. Kasu honetan permuta bat gauzatzeari ari direla esan du.



Usurbilgo Udala

Hirigintza batzordean azaldu zuen moduan, aspalditik datorren gaia da eta aurretik ere plenotik pasakoa, izan ere permuta hau gauzatu ahal izateko lehenik desafekzioa onartu baitzuten, alegia, udal jabetzakoa zen lurzati hori udal jabetzatik nolabait kentzea. Behin desafekzio hori onartuta, orain onartu behar dutena da permuta edo trukea egitea.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2019-0317

AURREKARIAK


Usurbilgo Udalak Aginagako erriberan Eiazazpi eta Oriagain tarteko bidea konpondu nahi du. Hala, lanak martxan jarri ahal izateko hartu beharreko ondasunen desjabetze espedientea izapidetzen ari da.

Ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon den bitartean, Pedro M.^a eta M.^a Aranzazu AGIRRE MUJICA anai-arrebek (erasandako 20. partzelaren jabeak) akordio-proposamen bat egin zioten udalari. Hain zuzen, plantatu zioten desjabetu beharreko lurzati udalaren jabetzako den beste batengatik trukatzeko, zehazki 22. herri-bidearen lehen 125 metroko zatia (Poligono 4 partzela 209 mugakidea dena), errepidea eta Fermindegi arteko zatia, eta trukaketa onartzen baldin bada, bidea -bukaera- ixtea eta txukuntzea.

Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2019ko urriaren 31an egindako ohiko bilkuran proposamena ontzat eman ostean, Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Patxi Suárez Pérez aldeko botoekin eta Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastianen abstentziarekin, trukaketa bideratu ahal izateko beharrezko izapidetzea martxan jarri du, lehendabizi trukatu beharreko herri-bideko lur zatia udal jabari publikotik desafektatuz.

Fermindegi bidearen, 22. herri-bidea, ezaugarriak honakoa dira:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ERREPIDEA – GALARDIAZPIKOA	40 m.	2,5 m.	Asfaltoa	Ona
GALARDIAZPI - FERMINDEGI	85 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
FERMINDEGI - IBIA	60 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
	70 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
IBIA - BIZTEGI	270 m.	--	Lurra	Galdua
BIZTEGI - BERRAIARTZABARRENA	190 m.	1,2 m.	Lurra	Galdua



Usurbilgo Udala

	120 m.	1,2 m.	Lurra	Ona
			60 m 20. bidetik	
BERRAIARTZABARRENA- 21. BIDEA	200 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 22.1 BIDE-ADARRA: GALARDIAZPI	300 m.	1,5 - 2 m.	Lurra	Ona

Fermindegi bidearen lehen bi zatiak dira trukatu behar direnak.

PERMUTA: **Permuta egin ahal izateko**, lehenik eta behin, **ondasun honen desafekzioa** eman behar da, legedian ezarritako prozedura betez. Besteak beste, kasu honetan, 175 m²ko herribidearen lehen zatia desafektatu eta ondoren trukatzeko egokitasuna eta legezketasuna justifikatu behar dira, horrela dio hitzez hitz ARAUDI S.L.ko Nekane Azarola hirigintzako aholkulariak landutako txostenean:

“ (...) Aipatu guztiagatik, honako hau PROPOSATZEN da:

Lehena.- *Agirre anai-arreben eskaera ontzat hartzea, alegia, Aginagako erriberako bidearen Eizazpi-Oriagain zatiko obra gauzatzeko udalak behar dituen lurren truke, 22. herri-bideko lehen zatiaren gutxi gorabeherako 175m² ematea.*

Bigarrena.- *Obra gauzatzeko behar diren lurak trukaketa formalizatu aurretik okupatzea, eta horretarako jabeekin lurak hartu aurreko akta sinatzea, bertan adieraziz desjabetzaren ordainetan beste lursail bat emango delaudalak bere lursailean garbiketa egingo duela eta ixteko baimena ematearen konpromisua hartzen dela.”*

Hartutako erabakiaren arabera, desafekzio espedientea jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 104. zenbakian, 2019ko abuztuaren 21ean dagokion iragarkia argitaratuz.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean ez da inolako alegazioarik tartekatu.


Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2020ko apirilak 24an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Fermindegi herri-bideko (22. herri-bidea) lehen 125 metroko zatia (4. poligonoa 209. partzela onibarraren mugakidea dena), errepidea eta Fermindegi baserriaren arteko zatia, eta Poligono 3 partzela 24 lursailaren trukaketa egitea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken



Usurbilgo Udala

Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

7.- HOBEKI, HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO EUSKAL HERRIKO TOKI ERAKUNDEEN ELKARTERA ATXIKITZEA (ESP. ZK.: HZ.02/2020-0091).

Lur Etxeberriak hartu du hitza eta azaldu du Hobeki hondakinen kudeaketa hobetzeko elkarteak 2018ko ekainean aurkeztu zela eta bere helburuak direla praktika onak bultzatzea, herrien arteko informazioa trukitzea eta bertatik ideia berriak sortzea. Gaineratu du Usurbilgo Udalak orain arte ezin izan duela Hobekiko parte izan plan ekonomiko-finantziarioa tarteko, baina behin plana bukatuta udala elkarteko kide izan daitekeela.

Jarraitu du esanez Usurbilekin Hobeki 10 udalek osatuko luketela eta bertako kide moduan eta herriko biztanle kopuruaren arabera, urtero 4.000 euroko aportazioa egingo lukeela Usurbilgo Udalak.

Josune Urkolak adierazi du beraiek Batzar Nagusietan PIGRUG planaren aldekoak direla eta ez dutela honen beharrik ikusten, beraz, beraien bozka kontrakoa izango dela.


Patxi Suárezek adierazi du berak ere kontra bozkatuko duela. Hitzarmeneko puntu batzuekin ados dagoela dio, baina errauste plantari buruz hitzarmenean esaten dena ez duela partekatzen zehaztu du.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumen Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2020-0091

Hondakinen erabilera gure bizimoduaren isla da. Kontsumo-ohiturak, pertsonok gizarte-antolaketan dugun tokia, naturarekin dugun harremana, garapena ulertzeko modua... horiek denak agerian geratzen dira hondakinen kudeaketari erreparatuz gero.

Eta, herritarren bizimoldeak ez ezik, erakunde publikoen jokabideak ere nabarmen azaltzen dira. Azken urteotan bilakaera esanguratsua gertatu da Euskal Herrian. Gaiaren garrantziaz jabetu, eta gaur egun inork gutxi jartzen du zalantzan modu egokian kudeatu behar direla hondakinak. Herritarrok nahiz herri-erakundeok arduraz eta erantzukizunez jokatzera behartuta gaude.



Usurbilgo Udala

Gauzak horrela, toki-erakunde askok urteak daramatzagu esperientzia desberdinak jorratzen. Lan honetan, ordea, elkarren arteko komunikazioa eta esperientzia- nahiz iritzi-trukaketa ez da behar bestekoa. Hutsune hori betetzeko asmoz, HOBEKI elkartera atxikitzea proposatu da, bere bitartez toki-erakundeek egiten dutena beste toki-erakundeen ezagupenera iritsi dadin, eta ondorio zuzeneko ekimenak guztien artean partekatuak izan daitezzen. HOBEKI elkarlana eta koordinazioa helburu dituen elkarte da, betiere kontuan hartuta hondakinen kudeaketa eta horren inguruko egikaritzapenak udalen esku daudela.

Eraketarako baldintza diren Estatutuak aurkezten dira eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko Estatuaren Lege Organikoa betetzen dute.

HOBEKIREN PRINTZIPIOAK ETA KONPROMISOAK.-

1. Izateko arrazoia


Hondakinen erabilera gure bizimoduaren isla da. Kontsumo-ohiturak, pertsonok gizarte-antolaketan dugun tokia, naturarekin dugun harremana, garapena ulertzeko modua... horiek denak agerian geratzen dira hondakinen kudeaketari erreparatuz gero. Eta, herritarren bizimoldeak ez ezik, erakunde publikoen jokabideak ere nabarmen azaltzen dira.

Azken urteotan bilakaera esanguratsua gertatu da Euskal Herrian. Gaiaren garrantziaz jabetu, eta gaur egun inork gutxik jartzen du zalantzan modu egokian kudeatu behar direla hondakinak. Herritarrok nahiz herri-erakundeok arduraz eta erantzukizunez jokatzera behartuta gaude.

Hori horrela, nabari da erakundeek beren diskurtsora ekarri dutela itxurazko terminologia eta hizkera zaindua: osasuna, ingurumena, ekonomia zirkularra...

Denen ahotan dabilta kontzeptu horiek. Hala ere, hitz huts horietatik harago, zoritxarrez, praktika oso bestelakoa da sarritan. Euskal Herrian ez dago hondakinen kudeaketarako politika antolaturik, herrialde bakoitzak bere erara funtzionatzen du, eta etekin politikoa eta ekonomikoa atera nahi izan zaio konpromiso soziala eskatzen duen gai bati. Askotan erabaki eta jardun kontraesankorrak eta okerrak gailentzen dira, unean uneko bulkadei eta interes ekonomiko pribatuei men eginez. Gaur egun, hondakinen legeriak ondo markatzen du zein printzipiok gidatu behar duten kudeaketa, besteak beste, argi azaltzen du tratamendurako hierarkiaren printzipioa, salneurrien eta tarifen politika, eta gardentasunaren irizpidea. Horiek zorrotz aplikatu ezean, nahasgarriak eta kaltegarriak dira diskurtso hutsak.


Horien guztien aurrean, adierazpen honekin bat egiten dugun Euskal Herriko tokierakundeok konpromiso erabatekoa adierazi nahi dugu hondakinen kudeaketa jasangarri eta arduratsuekin, nola teorian hala praktikan. Hemen azaldutako ikuskera partekatzen dugun toki-erakundeok elkartzea erabaki dugu, interes komunaren mesedetan lankidetzeta sustatzeko. Honako hauek dira geure egiten ditugun printzipioak, eta hala jakinarazten diogu iritzi publikoari.



Usurbilgo Udala

2. Elkartearen printzipioak

1. Osasunaren eta ingurumenaren zaintza lehenesten dugu hondakinen kudeaketan. Ez da kudeaketa onik herritarren osasuna arriskuan jartzen badu, edo naturari kalte egiten badio.
2. Herritarrok eta herri-erakundeok elkarren eskutik joan behar dugu. Eginkizun honen izaera kolektiboa nabarmentzen dugu, eta gizalegez jokatu beharra azpimarratzen. Hondakinak ondo sailkatzea guztion betebeharra da, eta ondo sailkatutakoak ondo tratatzea herri-erakundeon betebeharra da. Utzikeriaz zabarkeriaz jokatzeari, aldiz, ez da inoren eskubidea. Kostu ekonomikoak portaeretara doitu behar dira: ez da onargarria jokabide egokia dutenei besteen utzikeria ordainaraztea.
3. Herritarrek ahalduz eskatzen du, batetik, prozesu osoaren parte aktibo izateko aukera ematea, bigarrenik, hondakin horiekin hasieratik bukaerara zeregiten den garbi azaltzea, eta, hirugarrenik, erabakietan parte hartzeko aukera ematea.
4. Kudeaketak hondakinen zikloa bere osotasunean hartu behar du, ikuspegi zirkularra landuz. Sortutako hori naturara itzuli behar da, kalterik eragin gabe, eta, ahal dela, modu probetxugarrian. Hondakinak izan bitez lehengai.
5. Edozein tratamenduren abiapuntutzat dugu murriztea. Hondakinik onena sortzen ez dena da. Prebentzio neurriak zorrotz beharra dago, erakundeen inplikazio irmoz.
6. Bilketak eraginkorra izan behar du, horretan oinarritzen baita ondorengo tratamendua. Langintza horri dedikatzen zaiona, aurreragoko inbertsioa da. Gaika biltzeak alderdi kuantitatiboari nahiz kualitatiboari dakarkio hobekuntza. Bilketaren emaitza neurtu, ebaluatu eta hobetu beharra dago etengabe, eta zeregin horretan beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatu behar dira.
7. Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea dira, ordena horretan, lehenetsi beharreko tratamenduak.
8. Europako jarraibideek agindutakoarekin bat, balorizazio materiala hobesten da balorizazio energetikoaren kaltetan. Europako erakundeek garbi adierazi dute gaur egun ez duela zentzurik erraustegirik eraikitzeak, Europak lehen ere sobera dituelako horrelako azpiegiturak. Ezetz diegu, halaber, zabortegei konbentzional kutsakorrei.
9. Azpiegitura lokalak lehenesten ditugu, tokiko garapena indartzea eta garraioa murriztea dakartelako, besteak beste. Era berean, azpiegitura eskalagarrien alde egiten dugu, azpiegitura zurrunk baztertuz, etorkizuna hipotekatu gabe garaian garaiko baldintzetara egokitzeko aukera ematen dutelako.



Usurbilgo Udala

Multinazionalen negozio-gosearen aurretik, herritarren interesa lehenesten dugu.

10. Aurrerakuntza teknologikoei duten garrantzia eman behar zaie. Hondakinen sailkatze gero eta finagoa eta xeheagoa beharrezkoa da, eta material egokiak erabiliz, horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko teknologietan inbertitu beharra dago.

3. Elkartekideen konpromisoak

Elkarteko kide diren toki-erakundeek honako **KONPROMISO HAUEK** hartu dituzte:


1. Elkartearen printzipioak onartzen ditugu, eta hondakinen politika printzipio horien arabera garatzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Udalerriaren unean uneko egoeraren berri emango diogu elkarteari. Horretarako, ahalegina egingo da adierazleen taula osatzen, datuak lortzen, eta eskuratutako datuak elkarteari jakinarazten. Horrela, urteetako bilakaera jasotzeko eta erregistratzeko konpromisoa hartzen da. Egoeraren arabera, udalerrriak mailaka sailkatuko dira elkartearekin bat egiten duten momentuan.
3. Udalerriko hondakinen kudeaketarako plangintza bat diseinatu eta martxan jartzeko konpromisoa hartzen da. Plangintza horretan jasotako neurriak eta helburuak koherenteak izango dira elkartearen printzipioekin.
4. Tratamendu finalistara doan zatia ahalik eta txikiena izateko konpromisoa hartzen da. Zabortegi konbentzionalen edo errauste-planten ordeztu, bestelako tratamendu jasagarriak hobetsiko dira.

4. Jarduerak

Elkartearen jardunbidea ekintza praktikoak burutzera orientatzen da, kide diren toki-erakundeek beren egitasmoak aurrera eramateko laguntza eskainiz. Printzipio batek gidatzen du jardunbide hori: esaten dugunak eta egiten dugunak batera joan behar dute, eta horretan ereduak berebiziko garrantzia dauka.

Udalen eskumenen barne, eta gure printzipioekin koherente izanez, kudeaketarako egitasmo edo programa propioak eta koordinatuak martxan jartzea da xedea. Programa horietan jaso daitezkeen aukerak, batzuen eta besteen esperientzia praktikoetatik jasoko dira. Zerrenda irekia izango da, etengabe eguneratuz osatu eta aberastu behar dena.

Hain zuzen ere, horretarako beharrezko ikusten da web-euskarri bat antolatzea. Euskarri horrek aukera eman behar luke herriek modu libre eta autonomoan beren ekarpenak egiteko eta besteen esku uzteko. Intranet moduko bat eratuko da, non formatu sinpleen bidez proposamenak deskribatu eta kargatuko diren.



Usurbilgo Udala

Proposamen praktiko, egingarri eta errealistak jasotzea komeni da. Lehenetsiko dira nonbait martxan jarri direnak, edo martxan jartzeko aukera garbia dutenak. Eredu dinamikoa da, herrietatik elikatuko eta aberastuko dena. Elkartekideek gogoeta eta ekimen presentzialak ere bideratuko dituzte, aurrez aurreko jardunei ere tokia egiteko.

Guzti hau ikusirik, Nekazaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar eta Oskar Santamariaren aldeko botoekin, Patxi Suárezen kontrako botoarekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENA.- HOBEBI izeneko Elkartera, Hondakinen Kudeaketa Hobetzeko Euskal Herriko Toki-Erakundeek osaturikoa, atxikitzearen aldeko akordioa hartzea, sorrerarako proposatzen diren Estatutuen onarpenarekin batera.

BIGARRENA.- Udalaren ordezkarietarako Lur Etxeberria Gurrutxaga izendatzea eta ordezkariorde Joxe Maria Iribar Zapirain izendatzea.

HIRUGARRENA.- Erizpenaren azalpenetan jasotako Elkarteraren printzipioak eta konpromisoak onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

8.- UDALAREN ETA GARBITANIA ZERO ZABOR SL SOZIJETATEAREN ARTEKO HARREMANA EGITURATZEKO HITZARMENA ETA 2020KO JARDUERA PLAN OROKORRA ONARTZEA (ESP. ZK.: HZ.02/2020-0093).

Lur Etxeberriak azaldu du Garbitania 2010eko maiatzean sortu zela eta momentu honetan egin nahi dena da, batetik, Udalaren eta Garbitaniaren arteko harremana egituratzeko hitzarmena sinatu eta, bestetik, 2020ko jarduera plan orokorra onartu. Azken finean, Garbitania eta Usurbilgo Udalaren arteko harremana formalizatu nahi dela esan du.

Hitzarmenaren helburua bien arteko harremana egituratzea eta sortutako eskubideak eta betebeharrak zein diren finkatzea izango litzatekeela dio.



Usurbilgo Udala

Jarduera plan orokorrari dagokionez, plan honek jasotzen dituela dio urteroko bai alor teknikoa eta bai alor ekonomikoa.

Josune Urkolak esan du puntu honetan ere kontra bozkatuko dutela. Usurbilgo zabor bilketa berrantolatu egingo luketela eta beraiek ez direla Garbitaniaren aldekoak adierazi du.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumen Batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2020-0093

AURREKARIAK

2010eko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkurako erabakiaren bidez, Usurbilgo Udalak erabaki zuen hiri hondakinen eta asimilagarrien bilketa zuzenean kudeatzea, Udalaren baliabide propioa den Garbitaniaren bitartez.

2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, beste batzuen artean Usurbilgo Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa. Elkarre honen helburu soziala, sorrera eskriturako bigarren artikuluan jasota bezala, honakoa da:

“Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarrizko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.”

GARBITANIA, Usurbilgo Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legeak zehazten duen beste edozein.

Usurbilgo Udalaren eta GARBITANIAren arteko harremana egituratzeko honako hitzarmena adostu dute bi aldeek:

USURBILGO UDALAREN ETA GARBITANIA ZERO ZABOR SL-REN ARTEKO HITZARMENA, HIRI HONDAKINEN BILKETAKO BALDINTZAK ZEHAZTEKO.

Usurbilen, 2020ko martxoarenan

AURKEZTU DIRA

Batetik, AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkate lehendakari gisa, 2020ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera jarduten duena.

Bestetik, LUR ETXEBERRIA GURRUTXAGA, GARBITANIA Zero Zabor SL-ko Administrazio Kontseiluaren lehendakari gisa Administrazio Kontseiluaren akordioaren arabera jarduten duena.



Usurbilgo Udala

ESKU HARTZEN DUTE

Biak, euren karguen funtzioei dagokienez, elkarri onartzen diote hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eta gaitasuna, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengo.- 2010eko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkurako erabakiaren bidez, Usurbilgo Udalak erabaki zuen hiri hondakinen eta asimilagarrien bilketa zuzenean kudeatzea, Udalaren baliabide propioa den Garbitaniaren bitartez.

Bigarrena.- 2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, beste batzuen artean Usurbilgo Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa. Elkarre honen helburu soziala, sorrera eskriturako bigarren artikuluan jasota bezala, honakoa da:

“Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarritzko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.”

GARBITANIA, Usurbilgo Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legeak zehazten duen beste edozein.

Hirugarren.- Hitzarmen honen helburua Usurbilgo Udalaren eta GARBITANIAREN arteko harremana egituratzea da, azken honek, Udalaren tresna eta bitarteko den heinean, bere helburu sozialerako zehaztutako helburuak bete ditzan, harreman horri eragingo dioten hainbat alderditan.

Hitzarmen honetan zehaztuko den bi erakundeen arteko harremana bi erakundeen tipologia eta izaera ezberdina errespetatuz egingo da.

Udalarentzat bere bitartekoaren jardueri buruzko kontrola egiteko eta fiskalizatorako aukera emango dion tresna izango da, zerbitzua ematearekin atxikiriko ondarearen babesa ziurtatuko du eta elkartek Udalarekin dituen betebeharrak zehatz eta nagusiak zehaztuko ditu. Era berean, Udalak elkartearekin dituen konpromisoak zehaztuko ditu ikuspegi ekonomiko-finantzariorik, eta oro har, Udalaren betebeharrak zehaztuko ditu.

Elkarre publikoarentzat hitzarmen honek Udalaren aginte eta enkarguak osatzen dituen kudeaketaren helburua eta irismena zehazten du.

Laugarren.- Hitzarmen honen edukia Udalaren alde bakarreko jarraibideen bidez garatuko dira, bere bitarteko eta zerbitzu teknikoentzat, eta GARBITANIAK ezinbestean bete beharko ditu, eta sinatzen duten aldean elkarrenganako eskubide eta betebeharrak zehazten ditu.

Aurrekari horien arabera, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute baldintza hauetan:

BALDINTZAK

LEHENA.- XEDEA.

Hitzarmen honek GARBITANIA sozietateak eman beharreko zerbitzuak arautzen ditu, Udalaren bitartekoa eta zerbitzu teknikoa den heinean.

Hitzarmenak arautzen ditu Udalaren eta GARBITANIAREN arteko harremanetik sortutako eskubide eta betebeharrak.



Usurbilgo Udala

Aurrekoaren arabera, Udalak GARBITANIA sozietateari eskatzen dio, eta honek onartu, bere izenean eta bere kontura egin ditzala Hiri hondakinen solido (eta asimilagarrien) bilketa, Udalak zehaztutako modu eta baldintzetan burutuko direnak, hitzarmen honen eta gerora etor daitezkeenak arabera.

Zehazki, GARBITANIAK onartzen duen kudeaketa enkarguak bere gain hartuko ditu:

Hiri hondakin solido eta asimilagarrien gaikako bilketari ekiteko beharrezkoak edo egokiak diren jarduerak, hauen kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden Legezko xedapenak eta Europakoak betez, eta jarduera hauekin zehazten dena:

- Hiri hondakinen eta asimilagarrien bilketa udalerrri osoan.
- Hondakin horien garraioa transferentzia estazioetara edo azken tratamendua emango zaien lantegietara.

BIGARRENA.- JARDUKETA PLAN OROKORRA (JPO).

Udalak GARBITANIARI egiten dizkion enkargu zehaztatik eratorritako harremanak arautzeko oinarritzko tresna Jarduketa Plan Orokorra (JPO) izango da.

JPO-ak GARBITANIARI egiten zaizkion enkarguen deskribapen zehatza jasoko du, alor teknikoa eta ekonomikoak garatuz. Besteak beste, atal hauek garatuko ditu: zerbitzuaren xedea eta helburuak, zerbitzuaren ezaugarritze teknikoa (antolaketa, giza-baliabideak, baliabide materialak...), eta bideragarritasun ekonomikorako plana (kostua, urtez-urteko proiektzioa eta finantzazioa).

Urteko udal aurrekontuak prestatzeko, GARBITANIAK JPO eguneratua aurkeztuko du, Udalak emandako irizpide eta plangintzaren arabera. Udalak, bere barne prozedurak jarraiki, JPO bere aurrekontuetan jasoko du. Udalak GARBITANIAK egindako proposamenaren gainean aldaketarik egin badu, GARBITANIARI jakinaraziko dizkio honek bere barne aurrekontuetan jorrela jaso ditzan, bat etorri behar baitute bata zein bestean onartutako jardueren plangintza eta aurreikuspen ekonomikoak.

Urteko aurrekontuak onartu ondoren, urtean zehar, JPO enkargu zehatzen arabera eguneratzen joango da.

HIRUGARRENA.- SOZIETATEAREN ZERBITZUEN ALDAKETA

Udalak hitzarmen honen arabera sozietateak bete beharreko zerbitzuak aldatzea adosten duenean, hitzarmen berri bat sinatu delako edo zerbitzuaren baldintzak aldatu direlako, Udalak GARBITANIAKO Administrazio Kontseiluari jakinarazi beharko dio onartu aurretik, automatikoki aplikatzea aurreikusten den kasuetan izan ezik, alegia, aurrekontuko gutzitako kopuruetan aldaketarik ez, baina partiden erabileran eragina izan dezaketenak.

Edozein kasutan, GARBITANIAK ez du emango bere helburu sozialean aurreikusten ez den zerbitzurik.

Udalak proposatutako aldaketak jakinarazita, hilabeteko apean, GARBITANIAK txosten bat egingo du proposatutako aldaketak baloratuz, eta baldintza horiek onartzeko aukerak eta ondorioak hiru ikuspegitik aztertuz: juridikoa, ekonomikoa eta kudeaketakoa.

GARBITANIAK txostena igorriko du Udalak adierazitako apean, erabakia hartu behar duten organoek aldaketak egin aurretik kontuan har dezaten.

LAUGARRENA – LURRALDE EREMUA

GARBITANIAK Usurbilgo udalerrri osoari emango dio zerbitzua.

BOSGARRENA – BITARTEKO PROPIOA ETA ZERBITZU TEKNIKO IZAERAREN BETEBEHARRAK.

GARBITANIAK bere gain hartzen ditu betebeharrak hauek, bere izenean eta Udalaren kontura, beti hitzarmen honetan hitzartutakoaren arabera eta gauzatzen diren ondorengo enkarguetan:



Usurbilgo Udala

- a) Zerbitzu publikoa ematea, lehen klausularen arabera.
- b) Zerbitzua ematean ikusten diren gertaeren berri Udalari ahalik eta azkarren ematea.
- c) Zerbitzua ematearekin lotutako gaietan, udal organoei, laguntza eta aholkularitza teknikoak ematea.
- d) Alkateari, edo honek izendatzen duen pertsonari, eta udaleko teknikariei laguntza eta aholkularitza ematea sozietatearen helburu sozialarekin zerikusia duten egitekoetan.
- e) Legea eta kontabilitate printzipioak betez Urteko Kontuen Memoria txostena aurkeztea, barne hartzen dituela aplikagarri zaion araudia betetzeari buruzko txostena alor hauetan: aurrekontuetan, zorpetzean eta finantza eragiketetan, pertsonalean, lanen, zerbitzuen eta horniduren kontratazioan.
- f) Urteko jardunari buruzko Auditoria egitea.

SEIGARRENA.- ONDARE-ONDASUNEN ERREGIMENA.

Azaroaren 3koa 33/2003 Legearen 36.1 artikulua betez, Administrazio Publikoen ondareari buruzkoa, Udalak dagokion erregistroan jaso beharko ditu bere ondarearen ondasun eta eskubideak, jabarikoak zein ondasunezkoak, inskribatu behar direnak, baita erregistro horretan sar daitezkeen aipatutako ekintza eta kontratu guztiak ere, eta sozietateak betebeharrak izango du.

ZAZPIGARRENA.- INBENTARIOENA.

GARBITANIAk urtero aurkeztuko dio Usurbilgo Udalari jabari publikokoak diren eta bere eskura jarri diren ondasunen zerrenda eguneratua. Halaber, urtero ondasunen inbentarioaren onarpena egingo du.

ZORTZIGARRENA.- FORMAZKO BETEBEHARRAK

GARBITANIA, Tokiko merkataritza sozietatea izanik, ordenamendu juridiko pribatuaz arautuko da erabat, tokiko erakunde publikoei dagozkien araubide propioak aplikatu behar diren kasuetan salbu, halanola: aurrekontuak, kontabilitatea, finantzen kontrola, eraginkortasunaren kontrola, giza baliabideen kudeaketa, eta kontratazio publikoa.

GARBITANIAk Udalaren aurrean bete beharko ditu:

- Ekitaldi bakoitzerako Jarduera Plan Orokorra, JPO izendatuko duguna.
- Administrazio kontseiluak onartutako aurreko ekitaldiko kontuak, hitzarmen honen 5.e klausularen arabera osatuak.
- Tokiko merkataritza-sozietateei aplikagarri zaien araudi zehatzean ezarritako dokumentazio eta kontuak, zuzenbide pribatua zein publikoaren alorrean.
- Kontabilitatea indarrean dagoen araudira egokitu. Sozietate gisa, GARBITANIA kontabilitateari dagokionez Merkataritza Kodearen eta gainerako merkataritza araudiak menpe dago, Kontabilitate Plan Orokorren eta kontabilitate gaiko garapen araudiari dagokionez kontabilitate Institutuak eta Kontuen auditoriak eta aplikagarri zaizkion gainerako legediak ezarritakoak.
- Udalak eskatutako Auditoria eta txostenak egitea.

BEDERATZIGARRENA.- GARBITANIAren KONTRATUETAKO DERRIGORREZKO KLAUSULAK.

Oro har, GARBITANIAk adjudikaziodunekin sinatzen dituen kontratuak, eta dagozkion enkargutan ezarritakoarekin bat dator, edukien klausulak zehaztu beharko dira, baldintza hauetan:

- a) GARBITANIAren izaera, Udalaren elkarte gisa bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa.
- b) Enkargua egiten duen hitzarmena espresuki aipatuz.
- c) Aipamen zehatza kontratuak legedi zibilaren, merkataritzakoaren eta estatuko prozesalaren arabera egingo dira, eta aplikagarri zaizkion sektore publikoko kontratazioko araudiei.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA EDO ENKARGU ZEHATZAK



Usurbilgo Udala

GARBITANIAri egiten zaizkion enkargu zehatzak sinatu egingo dira Udalak eta GARBITANIAren Administrazio Kontseiluak aurrez onartzen baditu, horretarako beharrezkoak diren txostenei kalterik eragin gabe.

“Enkargu zehatzek” gutxienez atal hauek jaso beharko ditu:

- a) Enkarguaren helburua, irismena eta exekuzio epea.
- b) GARBITANIAren betebeharrak enkarguaren helburu diren zerbitzuen zuzendaritza, ikuskapena, kontrola eta harrerarekin.
- c) Jarduera Plan Orokorra (JPO) egokitua, eta udal aurrekontuen egokitzapena.
- d) Enkargu zehatza indarrean sartzeko data.

Hitzarmenaren aurreikuspenei kalterik eragin gabe, Udalak fiskalizazioaren eta egindako enkarguen kontrola eta horri eragiten dioten beste hainbat konturen ahalmena izango du.

Enkargu zehatza sinatuta, GARBITANIAk beharrezkoak diren kontratazioak egiteari ekingo dio eta horretarako arau hauetara egokituko da:

- a) Oro har, aplikagarri zaion legedia beteko da. Besteren artean, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, tokiko merkataritza sozietateei aplikagarri zaizkion beste edozein beteko dira.
- b) Interes publikoaren defentsarako egoki ikusten dituzten klausulak sartuko dira.

HAMAIKAGARRENA.- ZERBITZUEN FAKTURAZIOA.

GARBITANIAk, zerbitzu emakidari dagokion kostuen inputazioa egingo du, eta hileroko zerbitzuei dagokion faktura igorriko du, hilaren 10 baino lehen.

Udalak, faktura hilaren 30 baino lehen ordainduko du, Sozietateren oreka finantzarioa bermatze aldera.

Eta horrekin ados daudela erakusteko, parte-hartzaileek agiri hau, eta beharrezko ale guztiak, sinatu dituzte, ondorio berarekin, aipatutako lekuan eta egunean.


Ildo berean, GARBITANIA sozietateak 2020ko Jarduera Plan Orokorra aurkeztu du. Honako hain zuzen:

JARDUKETA PLAN OROKORRA – 2020

HITZAURREA

Hitzarmen honetako adierazpenetan jasotzen den gisan, 2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, beste batzuen artean Usurbilgo Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa. Hasierako helburu soziala *“Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarritzko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.”* bazen ere, 2018an, Hernaniko Udalak kale-garbiketako derrigorrezko zerbitzu publikoa emateko modua aldatzeko hartu zuen erabakiaren kontestuaren baitan, objektu soziala *“Bide publiko, lorategi eta kale garbiketako zerbitzuak ematea”* helburuarekin handitu zen.

Horiek horrela, egun Garbitaniak Usurbilgo Udalari hondakinen bilketa-zerbitzua kudeatzen dio. GARBITANIA, Usurbilgo Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legezko zehazten duen beste edozein. Bete behar horiei erantzun nahian, eta hitzarmen honetako bigarren baldintzan jasotzen denari erantzunez, esku artean 2020rako Jarduketa Plan Orokorra duzu. Bertan, Garbitaniak Usurbilgo udalerriri eskaintzen dion zerbitzuaren xehetasun tekniko eta ekonomikoak jasotzen dira, hauek guztiak Usurbilgo udalaren irizpideen baitan, eta bere mendean egingo dira; Ingurumen saileko teknikoen zuzendaritzaren azpian, eta udalerraren lehentasunen arabera. Beraz, hau guztia kontuan hartuta Garbitaniaren helburu nagusia indarrean dagoen araudia betetz, hondakinen



Usurbilgo Udala

bilketa eta kudeaketa modu eraginkor eta efiziente batean ematea litzateke; hondakinen bilketan birziklagarriak diren baliabideak ahalik eta gehien gaika biltzea dugu helburu.

Aipatu helburu nagusia lortzeko xede zehatz batzuk ezarri ditugu. Lehenengo eta behin gure jardueran gardentasuna sendotze bidean, erabiltzaileen eskura jar ditzakegun zerbitzu berrien definizioa burutuko dugu, ondoren udalaren nahia bada, indarrean jartzeko pausoak eman ahal ditzagun. Xede hori burutzeko, behin web orriaren abiatze egintzak amaitu ostean, zerbitzu berrien definiziorako Garbitaniaren helburuko publiko ezberdinek izan ditzaketen beharren definizioa burutuko da. Definizio horietatik abiatuta zerbitzu berrien definizio eta proposamenak egingo dira.

Atez ateko hondakinen bilketari dagokionez, zero zabor ereduaren inplementazioarekin jarraituko dugu. Gure planetan gizakiok sortzen ditugun hondakinen arazoari irtenbidea emateko hondakin gutxiago sortu, hondakinak berrerabili eta birziklatzeko bilketa-sistema eraginkorrak ezarri behar dira, eta hori da gure eguneroko lanaren helburua. Horretarako, atez ateko hondakinen bilketa-selektiboan eta frakzioen tratamendu egokian oinarritzen gara. Datorren urterako gure xedea arlo honetan, behin transferentzia plantetara egokitu ondoren errefusaren gutxitzean eragitea izango da, horretarako herritarren zein komertzio eta zerbitzuaren erabiltzaile ororen heziketan oinarrituko gara.

Espero dugu prestatu dugun aurrekontu hau herritarrentzat baliagarri izatea, eta gure eguneroko lana modu onenean egiteko baliagarri izatea.

Urteko plangintzak helburu nagusi hauek ditu Garbitaniak:

- Transparentzia eta kontratuen legeari egokitu ondoren zerbitzuaren erabiltzailearen esku jarri ditzakegun zerbitzu berrien definizioa burutzea
- Zerbitzuaren kalitatean eta jasotako frakzioen kalitatean hobekuntzak erdiesteko sistema eraikitzen jarraitzea. Transferentzia plantetara egokitu eta material berrerabilgarrien merkatuan ematen ari diren aldatetara moldatzea. Eta erabiltzaileen heziketa lanak burutzea.

Horiek horrela proposatzen den plangintzaren ardatz nagusiak honakoak dira:

1. Lizitazioak.
2. Sortzez besteko softwarea.
3. Webgunearen eraldaketa eta zerbitzuen moldaketa.
4. Heziketa.
5. Zerbitzu berriei dagokionez ikuspegi estrategikoaren lanketa.

1. AURREIKUSITAKO EKINTZA PLANA

2020rako Usurbilgo herriari Garbitaniak eskainitako zerbitzua aurrera eramateko proposatutako ekintza plana honako hau da:

1) Atez ateko zerbitzua

Txuria	Bilketa zerbitzuan zuzenean eragiten dute, eta ondorioz, aurrekontuan ere bai
Hori argia	Egiteko lanak dira, baina bilketa zerbitzuan ez dute zuzenean eragingo 2020.urtean.
Laranja	Ez dute bilketan eragingo zuzenean, baina bai aurrekontuan.

USURBIL

ZERBITZUA		ERLAZIOAK	NOIZ LANDU	ARDURADUNA	TALDEA
Sortzearen araberako ordainketa	Softwarean aldaketa txikiak egin	Ezarpina bukatu		hezitzaile-udala	
	Poligonotako frakzio guztiak irakurtzen hasi	Bitartekoak prestatu		udala-teknikoa-hezitzailea	
Poligonoak/Komertzi oak Vs Herria	Poligonotako/komertzi oetako Vs herriko hondakinen pisuak bereizita pisatu	Urtero egitea nahi du Udalak		Teknikoa-hezitzailea	
Zubieta	2 larrialdi guneetako bilketa eta	Donostiarrek erabiltzen duten larrialdi gunearen		udala-teknikoa-hezitzailea	



Usurbilgo Udala


	komertzioak. Hipodromoa ez.	argazki bidezko jarraipena (bio- hondakina eta errefusean)			
Errefusa	Poligonoen bilketa	Errefusaren jarraipenarekin segi. Inerte eta plastiko nahasketen bilketetan egin beharreko doikuntzak egiten jarraitu		Teknikoa-hezitzailea- koordinatzailea-udala	
Auto konposta	Ondorioetan oinarrituta jarraipen plana osatu	Material lehorraren gunea egokitu Udalak	Egokitzapenerak o hiru urte	Udala-hezitzailea	
Auzo konposta	Eusko Jaurjaritzaren arauaren inguruko txostena oinarri hartuta lanketa burutu	Erabakiak hartu: auto gestioarekin jarraitu, giza ballabideak sartu, guztia eraitsi		Udala-hezitzailea	
	Mantenua. Udalak ez du hedapenik aurreikusten.				
Organikoa	Baserritarrekin egin beharreko lanaren erabakiaren zain: aurrera badoa bilketan moldaketak egin.	Astelehenero 2 tn 6 hileroko deskarga tokia txandatu		Udala-teknikaria- hezitzailea	
Belar eta kimaketa bilketa	2019an Arsuagan egin den frogara errepikatu. Astelehenetan egingo da boluminosoekin batera. Apiriletik iraila amaierara. Bolumen handiko gaien bilketaren prezio berean.	Bilketarako poltsak adostu biltzaileekin		Hezitzailea- koordinatzailea- teknikoa+ Behemendi	
Intzidentzien jarraipena eta kudeaketa hobetzea	Hezitzaileak zerrendatuta dauzkan guneetan zentratuko gara. Protokoloa finkatuko du Hezitzaileak. Biltzaileei hezitzaileak egiten duen lana erakutsiko zaie.				
Zintzilikatzeko oinarriak garbitzea	Karcherrarekin urtean behin garbitzea	Kale garbiketako brigadarekin koordinatuta		Koordinatzaileak	
Larrialdi guneetako ontzien garbiketa	Atalluko larrialdi gunearen maiztasunaren jarraipena			koordinatzaileak	

2. EKINTZA PLANA AURRERA ERAMAN AHAL IZATEKO ZERBITZUAREN AURREKONTUA

Arestian aipaturiko lan-karga hori aurrera eramateko aurrekontua bilduko dugu atal honetan.
Gastuei dagokionez, honako haur aurreikusten da:

1) Atez ateko zerbitzua

	Usurbil
Pertsonal Zuzena	468.367,39 €
Amortizazioak	14.711,51 €
Gasolina	36.088,66 €
Seguruak (ibilgailuak)	3.286,54 €
Alokairuak	55.854,22 €
mantenua	20.768,32 €



Usurbilgo Udala

prebentzioa/ epien erosketa	4.657,07 €
garraioa	25.652,18 €
Ontziak/softwareak	7.586,70 €
garbiketa	2.937,60 €
Pertsonal ez Zuzena	29.234,53 €
Gastu orokorrak	25.395,91 €
Guztira	694.540,62 €

(*) Profesional independenteen zerbitzuak, gainontzeko aseguruak, banku zerbitzuak, publizitatea, bestelako zerbitzuak, bulego materiala, telefonoa, bestelako tributuak, formazioa, amortizazio ez zuzenak

Giza baliabideak

Atal honetan datorren urteko egitekoei eta etorkizunean etor daitezkeen lanei aurre egiteko giza baliabideak biltzen dira, zuzenak eta ez zuzenak. Zehazki Usurbilgo aurrekontuaren %71,65 osatzen du atal honek eta honela banatzen da:

1) Atez ateko bilketari dagozkion giza baliabide zuzenak

POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Ingurumen teknikariak	A16	Laboral finkoa	-	0,27	41.363,87 €
Koordinatzaileak	C2-13	Laboral finkoa	-	0,54	35.677,63 €
		Opor ordezkapena		0,14	
Hezitzaileak	C1-11	Laboral finkoa		1	32.387,82 €
		Opor ordezkapena		0,083	
Biltzaileak goizez Biltzaileak gauzez	9	Laboral finkoa	-	6	29.074,37 € 35.966,28 €
		Aldizkakoak	Ordezkoak Oporrak eta zerbitzu zehatzak	2.03	
Absentismoa					%4

2) Atez ateko bilketari dagozkion giza baliabide ez zuzenak

Ondorengo taulan, Garbitania osoari dagokion giza baliabideen egitura ez zuzena jasotzen da.


POSTUA	TALDEA	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Gerentea	A	Laboral finkoa	-	1	48.093,06 €
Administraria	C1-11	Laboral finkoa	-	1	32.390,87 €
Administraria	Bekaduna	%60	2020-06-05	1	7.749,00 €
Zerbitzu juridikoak	A18	Obra amaiera	2020-12-31	1	42.799,82 €

Egiturazko kostu honen esleipena honela burutzen da:

- Txosten honen laugarren puntuan jasotzen den gisan, Garbitaniaren aurrekontu osoa kontutan hartu, giza baliabideen %71,59a zuzeneko giza baliabideak dira eta %4,47a ez zuzenak.
- Hortaz, egitura honen arabera giza baliabide zuzenaren % 6,24a izango litzateke giza baliabide ez zuzena: $4,47/71,59=6,24$.
- %6,24 hori, giza baliabide ez zuzenen kostua estaltzera bideratzen da.
- Beraz, atez ateko zuzeneko plantillaren kostuari %6,24a gehituz gero giza baliabideei dagokien guztizko kostua lortuko genuke.

Ibilgetu ez materialak. Zuzeneko amortizazioak

Ez dago zuzeneko amortizaziorik.



Usurbilgo Udala

Ibilgetu materiala. Zuzeneko amortizazioak

Atal honek honako ondasunak jasotzen ditu:

kamioi berria GEESINK (44)	27.104,00 €
Piaggioa Porter (40)	3.174,94 €
UCA ASD/1, LECTOR 70, SOFTWARE, LECTOR DE HUELLA (21) Fitxaketa sistema	388,42 €
Orgatila (26)	1.315,88 €
2020an atez ateko inbertsioari dagokien amortizazioa	1.452,00 €

Jarraian zerrendatutako bilketa zerbitzua burutzeko erabiltzen diren ondasunek honako jabegoa dute:

KONTZEPTUA	MATRIKULA	TITULARTASUNA
Jaso eta konpaktatzeko kaxa ECOMAC-2NB	6266 GWX	Garbitaniaren jabegoa
NISSAN CABSTAR KAMIOIA	5988 GPR	Garbitaniaren jabegoa
Iveco kamioia	1119 CDV	Garbitaniaren jabegoa
GEESINK kamioia	8950 JNY	Garbitaniaren jabegoa
Altzari bilketa egiteko ibilgailua	7896 BSM	Hernaniko udalaren jabegoa
Piaggioa Porter	0547 JMM	Garbitaniaren jabegoa
Mehinosa orgatila		Garbitaniaren jabegoa
Lau irakurgailu		3 Usurbilgo udalaren jabegoa 1 Garbitaniaren jabegoa

Kanpo zerbitzuak

Atal honetako gastu guztien %84,16 zuzeneko ustiapen kostuek osatzen dute eta %15,84 gastu orokorrek.

Egiturazko gastuak: Gastu orokor eta giza baliabide ez zuzenak

Garbitaniaren egitura osoa kontuan izanik honela definitzen dira gastu orokorrei zein giza baliabide ez zuzenei dagozkien ehunekoak:


		%
Giza baliabide zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,72	71,59 %
Giza baliabide ez zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,04	4,47%

0.062417950 /%6,24	giza baliabide zuzenarekiko giza baliabide ez zuzena
0,037952802/%3,80	Gastu orokorrak beste gastuekiko atez ate

3. 2020rako INBERTSIO PLANA ETA FINANTZATZEA

Honakoak aurreikusten dira:

Inbertsio plana		
	Zerbitzuetarako baliabideak: bi irakurgailu	7.260,00 € aurreikuspena



Usurbilgo Udala

	OROTARA	7.260,00 € aurreikuspena
--	----------------	---------------------------------

(*) Finantzatzea, baliabide propioen bidez egitea aurreikusten da

Guzti hau ikusirik, Nekazaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar eta Oskar Santamariaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendi eta Patxi Suárezen abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udaltzatarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENA.- Usurbilgo Udalaren eta GARBITANIA Zero Zabor SL sozietatearen arteko harreman egituratzeko azalpenetan jasotako hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren ordezkarietan aipatutako hitzarmena izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- GARBITANIA sozietateak aurkeztutako 2020ko Jarduera Plan Orokorra onartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri GARBITANIA Zero Zabor SL sozietateari eta kontuhartzaitzari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.


Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- USURBILGO UDALAREN ETA NOAUAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA (ESP.ZK.: KE.02/2020-0046).

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek, aho batez, puntu hau tratatzea berretsi dute.

Alkateak adierazi du puntu honetan Udalaren eta Noauaren arteko hitzarmena onartu nahi dela eta proposamenean aipatzen den bezala azkeneko Nouarekin hitzarmena 2016ko martxoaren 21ean sinatu zela gaineratu du. Hitzarmenaren helburua da Noaua aldizkaria eta webgunea diruz laguntzea. Hitzarmenak lau urteko indarraldia zuen,



Usurbilgo Udala

beraz, hitzarmena 2020ko martxoaren 21ean amaitu zen. Udal gobernu honek ez zuen dudarik hitzarmena berritu egin behar zela.

Gaineratu du funtsean hitzarmenaren edukiak bere horretan jarraitzen duela, aldaketa bakarra diru-ekarpenean dagoela jakinarazi du, KPIren igoerarekin lotuta dagoena.

Hitzarmen hau ere lau urtetakoa izango litzatekeela adierazi du eta urteroko diru-ekarpenak zerrendatu ditu:

- 2020an: 56.000 euro
- 2021ean: 58.000 euro
- 2022an: 58.000 euro
- 2023an: 58.000 euro

Era berean, hitzarmenarekin eta diru-ekarpenarekin batera, Udalak lokala prekarioz lagatzen diola ere jasotzen da.

Alkateak jarraitu du esanez berez gai hau Kultura, gazteria eta euskara batzordetik pasa behar zela diktaminatzeko, baina koronabirusak eragindako egoera dela-eta batzorde hori ez zenez egin, zuzenean plenora ekarri dutela.


Mirari Azurmendik hitza hartu du eta adierazi du proposamen bat egin nahi dutela. Hasteko adierazi du Noauak oinarrizko helburuak betetzen dituela eta hitzarmenari lotuta Udalak betebeharrak batzuk jartzen dituela eta proposatzen dutena da jarraipen batzorde bat osatzea ikusteko helburuak ondo betetzen ari al diren, euskara eta euskal kultura nola bultzatu litezkeen.

Alkateak eskatu dio berriz azaltzea zer planteatzen duten, ez baitio ondo ulertu.

Mirari Azurmendik adierazi du hitzarmen honetan Noauak dituen betebeharrak batzuk jasotzen direla eta Noauak bere baitan duela euskararen erabilera suspertzeko egitasmoa, euskal kulturagintza zabaltzeko eta horretarako aldizkaria eta webgunea baliatzen dituela esan du. Proiektua oso interesgarria iruditzen zaie eta beraiek planteatzen dutena da udaletxetik jarraipen batzorde bat osatzea non alderdi politiko guztiek parte hartu dezaketen eta helburu horiek nola burutzen diren aztertzeko. Hau da, Noauak egiten dituen lanen helburuak betetzen diren bai ala ez.

Alkateak eskatu die proposamena idatziz aurkeztea, proposamenari forma ematea eta erregistratzea.

Noauak dituen helburuetan bat eginik eta beste hainbat erakunde Udalak diruz laguntzen dituen bezala, dirulaguntza hitzartu batean jasotzen dutela adierazi du. Hala ere, proposatzen duten jarraipen batzorde horren funtsa zein den ez duela garbi ulertzen adierazi du, ea Noauaren lanak kontrolatzeko den, ea helburuak lortzen ote



Usurbilgo Udala

dituen ikusteko den... Benetan ez duela oso ondo ulertzen adierazi du, zeren Udal honek euskararen erabilera sustatzeko, euskararen normalizazioari begira, herri honetan zorionez euskalgintza badago, hamaika ekimen daude, Udalak parte hartzen du euskararen sustamenerako hamaika ekimenetan Noauarekin eta beste eragile batzuekin, kasu honetan eta pil-pilean ari diren ekimenean helburu horien lorpenerako Euskaraldia da.

Lehen aipatu duen bezala eta ondo iruditzen bazaie proposamenari forma ematea eskatu die, erregistratzea eta dagokion batzordean aztertuko dutela.

Mirari Azurmendik erantzun dio ondo iruditzen zaiola, baina adibide moduan aipatu du hitzarmenaren hamaseigarren puntuan jasotzen dela “Noauaren jardunean Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planean jasotako irizpideak kontutan izango dira”, halako kondizioa jartzen da baina ez dakiela dio gero horren jarraipenik egiten den. Idatziz aurkeztuko dutela esan du.

Alkateak erantzun dio eskertuko lukeela, zeren justu egin duen aipamen hori guztietan jasotzen da, Berdintasun Legea dago eta Udalak batzuekin eta besteekin egiten dituen hitzarmen guztietan klausula bezala jasotzen da.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: KE.02/2020-0046

Ikusirik


Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantzaren 2. atalean hitzartutako dirulaguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak dirulaguntzak emateko duen bideetako bat bezala.

Bestalde, Usurbilgo Udalaren 2020-2022 dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Noaua! eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena jasotzen da.

2016ko martxoaren 21ean Noaua!k eta Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin aldizkaria eta webgunea finantzatu dira. Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa zen, eta, honenbestez, 2020ko martxoaren 21ean amaitu zen hitzarmenaren indarraldia.

Aurreikusitako egutegiaren arabera, martxoaren 16an egitekoa zen Kultura, Euskara eta Gazteria Batzordera eramatekoa zen hitzarmen berria, ondoren, martxoaren 26ko Udalbatzak behin betikoz onartzeko.

Covid-19 birusa dela eta, martxoaren 16ko eta 26ko bi batzordeak bertan behera geratu ziren.



Usurbilgo Udala

Noaua! eta Udalak egin dituzten bileren ondorioz, aproposa ikusi dute beste lau urterako hitzarmena sinatzea.

Hitzarmen honen helburua Noaua! Kultur Elkartearekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.

Kontuan harturik

1. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena. (EAO 2017 azaroaren 9koa)
2. 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Toki Erakundeei buruzkoa.
3. Administrazio Publikoetako Kontratuaren Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
4. Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.
5. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
6. Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
7. Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
8. Usurbilgo Udalaren 2020-2022 dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020-01-30)
9. Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. (GAO, 2008-07-01)
10. Usurbilgo Udalaren Euskararen Udal Ordenantza (1989-08-09)
11. Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana (2018-2022)
12. 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa
13. Usurbilgo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana
14. Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.

Alkatearen proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Noaua!-k izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Hirugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.



Usurbilgo Udala

Laugarrena: Hitzarmenaren arabera, urtez urte, Usurbilgo Udalak Noaua!ri dirulaguntza hau emango dio:

2020an: 56.000 euro

2021ean: 58.000 euro

2022an: 58.000 euro

2023an: 58.000 euro

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alaitz Aizpurua Noauako langileak parte hartzeko eskaera egin du eta alkateak hitza eman dio.

Alaitz Aizpuruak hasteko zoriondu egin ditu, poztu egiten dela dio telematikoki pleno bat ikusteko aukera dutelako. Itxialdiak gauza onak eta gauza txarrak ekarri dituela dio, baina hau gauza ona dela uste du.

Bestalde, eskerrak eman dizkie Noauako hitzarmenaren aldeko bozka ematen dutelako denek.

Hala ere, argitu nahiko lukeela dio Noaua kultur elkarte bat dela eta helburu desberdinak dituela. Mirarik aipatu duen bezala, hitzarmen hau aldizkari eta webguneari dagokion hitzarmena dela gaineratu du. Jarraipen edo batzorde hori hitzarmenak bere baitan jasotzen duela dio eta kultura teknikariak egiten duela zehaztu du. Hala ere, beraiek ez dutela inongo arazorik edozein batzordetako kide izateko, nahiz eta ez dakien beraiekin izango ote litzatekeen batzorde hori. Hitzarmena kultura sailetik egiten dela dio eta jarraipen hori iraunkorra dela.

Era berean, Alaitzek uste du gainontzeko hitzarmenetan bezala jasota daudela puntu guztiak eta berak dakiela oraindik ez dela horrelako batzorde berezirik edo jarraipen batzorderik beste inorrek osatu, hala ere, lehenengoak izateko ez dutela inongo arazorik.



Usurbilgo Udala

Eskerrak emanez agurtu da.

10.- TOLOSALDEA-SAHARAREKIN ELKARTEARI MIKROBUSAREN DOHAITZA (ESP. ZK.: ID.04/2019–0299).

Alkateak azaldu du Udalaren jabetzakoa den mikrobusak matxura asko izaten dituela eta ikusten zen beste udal erabilera baterako ez zela erabilgarria. Tolosaldea-Sahararekin elkartetik eskaera bat jaso zen eta hauek mikrobusari beste erabilera bat ematea proposatzen zuten. Hori horrela, elkarte horri mikrobusa dohaintzan ematea egokitzen jo zutela adierazi du.

Mikrobusa udal jabetzakoa denez, udal inbentariotik baja eman behar zaiola adierazi du eta bestalde erabaki dohaintzan ematen zaien edo ez.

Josune Urkola hitza hartu du eta Antolakuntza batzordean adierazi zuen moduan mikrobus hau arazo teknikoak ematen dituen furgoneta bat dela eta Saharar herrialdera bidaltzeko hainbat arazo izango lituzkeela esan du. Horretaz gain, agian beste erabilpen bat eman beharko litzaiokeela uste dute. Beraz, ez daude ados eta kontra bozkatuko dutela esan du.

Alkateak adierazi du pentsatu nahi duela dohaintzan ematen duten ibilgailu baten egoera ona dela, ez Udalaren beharretarako baina bai agian beste behar batzuetarako, eta ez diotela inori emango oso egoera txarrean dagoen ibilgailu bat.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute:

“Esp: ID.04 / 2019 - 0299

2019. urtean utzi zitzaion Taxibus zerbitzua emateari, Kontratu publikoen lege berriarekin zailtasun handiak ikusten ziren zerbitzu honekin aurrera jarraitzeko. Era berean, ibilgailuak matxura asko eta sarri izaten zituen eta udal erabailerarako ere ez baliagarria.

Tolosaldea Sahararekin GKE elkarteak proposamen bat luzatu diote udalari eta, beraiek 2.erabilera bat emango lioketela adierazi dute.

Kontuan izanik, "TOLOSALDEA SAHARAREKIN" G.K.E. ELKARTEA (IZK: G20760799) izeneko erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatuta dagoela 2001(e)ko abenduaren 14(e)an emandako Ebazpenaren ondorioz, AS/G/09549/2001 erregistro zenbakiarekin.

Halaber, bere elkartearen xedea honakoa da, elkartearen estatutuen arabera:



Usurbilgo Udala

- a) Sahara herriaren arlo ekonomiko, osasun eta kulturalean laguntza humanitarioa eskeini.
- b) Saharar herriaren berezitasunak berbaloratu, gaita eta zabaltzea.
- c) Saharar herriaren historia, kultura eta gaur egungo egoera zabaltzea.
- d) Saharar herritarrekin giza eta kultur kontaktuak intentsifikatzea.
- e) Sahara ingurunea ikertzea.
- f) Aurreko helburuekin bat egiten duten nazio elkarteekin lankidetzatza bultzatzea.
- g) Herrien autodeterminazio eskubidearen inguruan ONUk adierazten duena zabaltzea.
- h) Helburuak batu daitezten beharrezko aginteekin hitzarmenak gauzatzea.
- i) Giza eskubideak eta askatasunerako ekintzak era demokratikoan defenditzea.
- j) Herri sahararentzat edota antzeko egoeran dauden beste herrientzat lankidetzatza proiektuak gauzatzea.

Hori horrela, Udalari inongo galerarik suposatzen ez diola baieztatu ondoren, Antolakuntza Batzordeak, apirilaren 21ean egindako bilkuran, egindako bozketan emaitzak honakoak izan direlarik: aldeko botuak, Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Francisco José (Patxi) Suarez Perez eta Josune Urkola Larrarteren abstentzioa, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA: Udal inbentarioan jasota dagoen 2529GKM ibilgailuari baja ematea.

BIGARRENA: 2529GJM mikrobusari Tolosaldea Sahararekin elkarteari dohaintzan ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Sahararekin elkarteari jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

11.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du gaurkoa esperimentu bat izan dela, gorabehera batzuk izan dituztela baina uste du oro har ondo joan dela. Hurrengo plenoa beste baldintza batzuetan egiteko aukera izango dutela espero du.

Gaineratu du datorren astean ez baina agian hurrengoan Antolakuntza batzorde bat deitzen saiatuko direla. Ostegun arratsaldean Espainiako Gobernutik deseskalada plana aurkeztu zutela esan du, sorpresaz hartu dutela batez ere datei dagokienean, eta hori gure herrian zer eta nola egokitu horretan dabilzala esan du. Proposamen bat eskuartean dutenean Antolakuntza batzordera eramango dutela jakinarazi du.

Larunbatetik aurrera konfinamentua arintzeko neurrien barruan beste neurri batzuk jarriko direla esan du, besteak beste, kirola egiteko aukera emango dela eta adinekoei kalera ateratzeko aukera emango zaiela. Neurri horiei buruzko zehaztasunak gaur arratsaldeko seiretan ematekoak zirela esan du, justu beraiek plenoan dauden bitartean eta ez dakiela zehazki zer esan ote duten.

Aipatu du ikusi dutela ume batzuek beldurra dutela kalera ateratzeko eta susmatzen dute seguraski adinekoen artean ere egongo direla kalera ateratzeko beldurra dutenak. Adineko pertsonen lasaitasun mezu bat emateko helburuz eta informazio zehatza emateko helburuz astelehenean bertan 65 urtetik gorako herritarrei telefonoz deitzea erabaki dutela jakinarazi du, deiak 30 udal langilek egingo dituztela gaineratu du. Bestalde, Udalak 65 urtetik gorako herritar guztiei bina maskarila emango dizkiela esan du.

Maskarilak eskuratu ahala agian herrian zehar banaketa puntuak jarriko dituztela esan du, hala ere, hau zer eta nola egin aztertzeo daukatela adierazi du.

Josune Urkolak galdera bat duela esan du, 65 urtetik gorakoei egingo zaizkien deiak direla-eta, ea aurreikusita dagoen zenbat dei izango diren.

Beñat Larrañagak erantzun dio 65 urtetik gorako 1.258 herritar daudela eta horiek etxebizitzetan banatuta 861 etxebizitza izango direla zehaztu du.

Alkateak esan du dei hauek larunbata baino lehenago egin nahi zituztela baina informazioa etorri behar duen lekutik berandu datorrenez, astelehenera atzeratu behar izan dituztela adierazi du ahalik informazio argiena eta zehatzena eman ahal izateko.

Bihar udal gobernuko bilera bat egingo dutela esan du hau guztia Usurbilen zer eta nola egin aztertzeo eta kartel bat aterako dutela portal guztietan jarriko dena.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:35etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.